eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco — Euskal Herriko Unibertsitatea

Ph.D. Dissertation *Doktorego tesia*

Solving Partial Differential Equations using Artificial Neural Networks

Deribatu partzialetako ekuazioen ebazpena neurona-sare artifizialen bidez

Carlos Uriarte

2023

Ph.D. Dissertation

Solving Partial Differential Equations using Artificial Neural Networks

Carlos Uriarte

Supervisors: David Pardo, Elisabete Alberdi

2023

Doktorego tesia

Deribatu partzialetako ekuazioen ebazpena neurona-sare artifizialen bidez

Carlos Uriarte

Zuzendariak: David Pardo, Elisabete Alberdi

2023

This dissertation is written in English and Basque. In the part prior to the main body, the mixture of languages obeys the following rule: for contents with a single paragraph, two paragraphs will appear—the first one in English and the second one in Basque. For contents with more than one paragraph, they will be distinguished by subsections entitled in either English or Basque. In the body of the dissertation, odd chapters are developed in Basque while even chapters are in English. To internationalize the scope of the presented work, the appendices include the English translations of the odd chapters written in Basque.

Tesi hau ingelesez eta euskaraz idatzita dago. Tesiaren gorputzaren aurreko zatian, hizkuntzen nahasketak honako arau hau beteko du: bi paragrafo agertuko dira (lehenengoa ingelesez eta bigarrena euskaraz) testu-paragrafo bakarra duten edukietan. Paragrafo bat baino gehiagoko edukiak aldiz, ingelesezko edo euskarazko izenburua duten azpiatalen bidez bereiziko dira. Tesiaren gorputzean, kapitulu bakoitiak euskaraz garatuko dira, eta kapitulu bikoitiak, ingelesez. Aurkeztutako lanaren irismena nazioartera zabaltzeko xedez, euskarazko kapitulu bakoitien ingelesezko itzulpenak eranskinetan jasoko dira.

Contents/Aurkibidea

Acknowledgments/Esker onak

Acknowledgements

Over the period of completion of this dissertation, I have met people to whom I will always be grateful for many and diverse reasons.

First of all, I want to express my deepest gratitude to David: a singular guy with an assertive and carefree attitude, and an unusual way of looking at life. These, combined with his patience, incredible interpersonal skills, and great intuition, make him a wonderful person to work with, be advised by, and enjoy funny and not-so-funny moments. I thank him for: his continuous teachings, our long conversations, and that innate discipline of him to destroy works that had cost me so much to build—to tell the truth, he used to be right. I will be eternally grateful to him for the successes and stumbles I have found along this exciting and unrepeatable PhDing journey.

I would also like to thank my other supervisor, Elisabete, for bringing me the opportunity to develop the thesis under her supervision. I would especially like to thank her for her impeccable follow-up during the organization and writing of this dissertation. Without her, it would have been an infinitely more complex task.

In addition to my supervisors, much of the credit for the sublime working environment goes to the rest of my research colleagues. In particular, Javier was a fundamental workmate during the first stage of my PhD, always available to help me virtually during the pandemic. His virtuosity in tackling tedious tasks without tiring fascinates me, as well as in continuously proposing to have “a last beer”—which rarely was the last one—after a day of hard work. I have learned enormously from him and shared unforgettable moments. The same goes for Ana, who accompanied me from the beginning to the end of my predoctoral career and with whom I have also shared enjoyable moments in every professional and not-so-professional appointment. To highlight some of the not-so-professional ones: our adventures during the “Camino de Santiago” and the “Aste Nagusiak” full of glitter.

I am incredibly grateful to Judit for hosting me in such an endearing way during my research stay at the Oden Institute for Computational Sciences and Engineering of the University of Texas at Austin, USA. It was an adventure I enjoyed a lot. I also thank her for introducing me to Prof. Demkowicz, from whom I learned a great deal of knowledge I have applied in my research works. Similarly, I thank Ignacio, Paulina, Keko, and Patrick for their incredible kindness and hospitality during my research stay at the Institute of Mathematics of the Pontifical Catholic University of Valparaíso, Chile. I have many good anecdotes engraved in my memory in which they were taking part, particularly at moments of “carreteo”.

It is difficult to sufficiently acknowledge all the lived experiences with so many colleagues during these four years. To avoid making this section too long, I briefly thank Jamie, Jon Ander, Julen, Lena, Oscar, Felipe, Mahdi, Ali, Jesús, Manuela, and Tomás. Although the greeting is brief, it has a lot of meaning. I thank them all a lot.

I would also like to thank all the BCAM staff for assisting me during the bureaucratic difficulties encountered, which have not been few. In this regard, I want to thank Miguel especially. He has been infinitely patient and lovely with me on many occasions. A thousand thanks!

Besides, during these four years, I have met people who, although not directly related to my research environment, have become friends of mine due to their relationships with workmates and significantly contributed to the easygoingness of this adventure. I particularly want to thank Claudio and Mario for our many good times together.

Finally, I want to thank my family and friends for their support. In particular, I want to offer my eternal gratitude to my father, Enrique; my brother, Luis; and my partner, Iratxe, who unconditionally accompanied me and firsthand experienced my moments of tension and joy. Thank you for understanding the conflict of a researcher lifestyle—working at ungodly hours, leaving aside the usual healthy social habits, simply because I felt I could not procrastinate my moments of research inspiration. Heartfeltly, thanks.

Esker Onak

Doktoretza egiten hasi nintzenetik, arrastoa utzi didaten hainbat pertsona ezagutu ditut bidean, eta guztiei adierazi nahiko nieke nire esker ona.

Lehenik eta behin, nire esker onik handiena adierazi nahi diot Davidi. David pertsona berezia da, jarrera asertiboa eta axolagabea dauka, eta bizitza ezohiko eran ikusten du. Ezaugarri horiek, haren pazientziarekin, haren trebetasun interpertsonal harrigarriekin, eta bere-berea duen intuizio handiarekin batera, pertsona benetan zoragarria egiten dute berarekin lan egiteko orduan, harengandik aholkuak jasotzeko orduan, eta une dibertigarrietan eta ez hain dibertigarrietan gozatzea posible izaten da. Eskerrak eman nahi dizkiot, hain zuzen ere, haren etengabeko irakaspenengatik, gure elkarrizketa luzeengatik, eta egitea hainbeste kostatu zitzaizkidan lanak desegiteko duen berezko diziplinagatik (egia esan, arrazoia izaten zuen gehienetan). Beti egongo naiz berari eskertuta doktorego-bidaia liluragarri eta errepikaezin honetan aurkitu ditudan arrakasta eta behaztopengatik.

Aldi berean, eskerrak eman nahi dizkiot nire beste zuzendariari, Elisabeteri, bere ardurapean tesia garatzeko aukera emateagatik. Batez ere, eskerrak eman nahi dizkiot tesi honen antolaketan eta idazketan egin duen jarraipenagatik. Bera gabe, askoz lan konplexuagoa izango zatekeen.

Nire zuzendariei ezezik, laneko giro bikaina lankideei ere zor diet. Zehazki, Javier funtsezko lankidea izan zen nire doktoretzaren lehenengo fasean; beti egoten zen prest pandemian zehar era birtualean laguntzeko. Lan aspergarri eta nekagarrietan duen diziplinak liluratu egiten nau, eta ez ditut ahaztu nahi gogor lan egindako egunen amaieran “azken garagardoa” hartzeko proposamenak (gutxitan azkena izaten zena). Asko ikasi dut harengandik eta une ahaztezinak partekatu ditugu. Anari ere eskerrak eman nahi dizkiot, nire karrera aurredoktoralean hasieratik bukaeraraino ondoan egon den lankidea izan baita, eta une gozagarriak partekatu baititut hitzordu profesional eta ez hain profesional guztietan. Une ez oso profesionalen artean, Donejakue bideko abenturak eta Aste Nagusietako distiraz betetako denboraldiak dira aipagarrienetakoak.

Asko eskertzen diot Juditi hainbeste une berezi partekatzegatik nire egonaldian zehar Oden Konputazioko eta Ingeniaritzako Institutuan, Texasko Unibertsitatean Austinen, Estatu Batuetan. Asko gustatu zitzaidan abentura izan zen. Halaber, eskerrak eman nahi dizkiot Demkowicz irakaslea aurkezteagatik, nire ikerlanetako askotan aplikatu dudan ezagutzaren garatzailea hura baita. Era berean, eskerrak eman nahi dizkiet Ignacio, Paulina, Keko eta Patrick ikerlariei, Matematikako Institutuan Valparaísoko Pontifizia Katolika Unibertsitatean nire egonaldian izan zuten adeitasun eta abegikortasunagatik. Anekdota on asko grabatuta dauzkat oroimenean, batez ere “carreteo” garaietakoak.

Zaila da lau urte hauetan hainbeste lankiderekin bizitako esperientzia guztiak behar bezala aitortzea. Atal hau gehiegi ez luzatzearren, labur bada ere, eskerrak eman nahi dizkiet Jamie, Jon Ander, Julen, Lena, Oscar, Felipe, Mahdi, Ali, Jesús, Manuela eta Tomás lankideei. Nahiz eta agurra laburra izan, esanahi handikoa da.

Era berean, eskerrak eman nahi dizkiet BCAMeko administrazioko langile guztiei, hain gutxi izan ez diren zailtasun burokratikoen aurrean laguntza emateagatik. Bereziki, Migueli. Oso maitagarria eta pazientzia handikoa izan da nirekin askotan. Mila esker!

Gainera, lau urte hauetan, nire ikerketako ingurunearekin lotura zuzenik izan ez arren, egindako adiskideei ere eskerrak eman beharrean nago. Bereziki, Claudiori eta Mariori elkarrekin izan ditugun momentu itzelengatik.

Azkenik, eskerrak eman nahi dizkiet nire etxekoei eta adiskideei emandako laguntzagatik. Bereziki, esker onak nire aita Enriqueri, Luis anaiari eta nire bikotekide Iratxeri, baldintzarik gabe lagundu didatelako eta nire tentsio- eta poztasun-uneak bertatik bertara bizi izan dituztelako. Hain zuzen, eskerrik asko ikertzaile baten bizimoduak dakarren gatazka ulertzeagatik; hau da, ezorduetan lan eginez, ohiko gizarte-ohitura osasungarriak alde batera utzita, ikerketa-inspirazioko uneak atzeratzerik sentitzen ez nuelako. Bihotz-bihotzez, eskerrik asko.

Abstract/Laburpena

Abstract

Partial differential equations have a wide range of applications in modeling multiple physical, biological, or social phenomena. Therefore, we need to approximate the solutions of these equations in computationally feasible terms. Nowadays, among the most popular numerical methods for solving partial differential equations in engineering, we encounter the finite difference and finite element methods. An alternative numerical method that has recently gained popularity for numerically solving partial differential equations is the use of artificial neural networks.

Artificial neural networks, or neural networks for short, are mathematical structures with universal approximation properties. In addition, thanks to the extraordinary computational development of the last decade, neural networks have become accessible and powerful numerical methods for engineers and researchers. For example, imaging and language processing are applications of neural networks today that show sublime performance inconceivable years ago.

This dissertation contributes to the numerical solution of partial differential equations using neural networks with the following two-fold objective: investigate the behavior of neural networks as approximators of solutions of partial differential equations and propose neural-network-based methods for frameworks that are hardly addressable via traditional numerical methods.

As novel neural-network-based proposals, we first present a method inspired by the finite element method when applying mesh refinements to solve parametric problems. Secondly, we propose a general residual minimization scheme based on a generalized version of the Ritz method. Finally, we develop a memory-based strategy to overcome a usual numerical integration limitation when using neural networks to solve partial differential equations.

Laburpena

Deribatu partzialetako ekuazioak aplikazio ugari dituzte fenomeno fisiko, biologiko edo sozial anitzen modelizazioan. Horregatik, funtsezkoa da ekuazio horien soluzioen hurbilpenak konputazionalki egingarriak diren terminoetan adieraztea. Gaur egun, ingeniaritzan, deribatu partzialetako ekuazioak ebazteko zenbakizko metodo ezagunenen artean daude diferentzia finituen eta elementu finituen metodoak. Duela gutxi, deribatu partzialetako ekuazioak ebazteko ospea hartu duen zenbakizko metodo bat neurona-sare artifizialen erabilpena da.

Neurona-sare artifizialak edo, laburtzearren, neurona-sareak hurbilketa-propietate unibertsalak dituzten egitura matematikoak dira. Gainera, azken hamarkadako garapen konputazional apartari esker, ingeniarientzako eta ikertzaileentzako zenbakizko metodo eskuragarri eta indartsu bihurtu dira. Adibidez, irudien eta hizkuntzen prozesamendua neurona-sare artifizialen gaur egungo aplikazioak dira, eta duela urte batzuk pentsaezina zen errendimendu bikaina erakusten dute.

Tesi honetan neurona-sare artifizialen bidezko deribatu partzialetako ekuazioen zenbakizko ebazpena aztertuko dugu, honako helburu bikoitzarekin: alde batetik, neurona-sareen portaera ikertzea deribatu partzialetako ekuazioen soluzioen hurbiltzaile gisa, eta bestetik, neurona-sareetan oinarritutako metodoak proposatzea, ohiko zenbakizko metodoen bidez nekez ekin dakiekeen lan-esparruetarako.

Neurona-sareetan oinarritutako proposamen berritzaile gisa, lehenik eta behin, elementu finituen metodoaren funtzionamenduan oinarritutako metodo bat aurkeztuko dugu, problema parametrikoak ebazteko diskretizazioan fintzeak aplikatzen direnean. Bigarrenik, hondarren minimizazio eskema orokor bat proposatuko dugu, Ritz-en metodoaren bertsio hedatu batean oinarritua. Azkenik, memorian oinarritutako zenbakizko integrazio teknika bat erakutsiko dugu. Teknika horren helburua da deribatu partzialetako ekuazioak ebazteko neurona-sareak erabiltzen direnean agertzen den ohiko muga gainditzea.

Acronyms/Akronimoak

Throughout this dissertation, English acronyms will be used exclusively, regardless of whether they appear in English or Basque portions of text. In English, the first letter of each constituent word is capitalized. In Basque, only proper or foreign constituent words have the first letter capitalized (or at the beginning of a sentence). In the following list, acronyms appear in singular form in English, while in bare form and between parentheses in Basque.*

Tesi honetan zehar, ingelesezko akronimoak bakarrik erabiliko dira, horiek agertzen diren testu zatia ingelesez ala euskaraz idatzita dagoen kontuan hartu gabe. Ingelesez, lehen letra larriaren irizpideari eutsiko diogu hitz eratzaile guztietan. Euskaraz, hitz eratzaileen lehen letrak larriz egongo dira izen berezien kasuan bakarrik (edo esaldiaren hasiera bada). Hurrengo zerrendan, akronimoak singularrean agertzen dira ingelesez, eta euskaraz, berriz, oinarriko forman eta parentesi artean.*

1D one-dimensional (dimentsio bakar)

2D two-dimensional (bi dimentsio)

3D three-dimensional (hiru dimentsio)

AD Automatic Differentiation (Deribaketa automatiko)

ANN Artificial Neural Network (Neurona-sare artifizial)

BVP Boundary-Value Problem (Mutur-balioen problema)

D^{2}RM Deep Double Ritz Method (Deep Ritz metodo bikoitz)

DeepFEM Deep Finite Element Method (Deep elementu finituen metodo)

DNN Deep Neural Network (Neurona-sare sakon)

DRM Deep Ritz Method (Deep Ritz metodo)

FDM Finite Difference Method (Diferentzia finituen metodo)

*With some exceptions/Salbuespenak salbuespen.

FEM Finite Element Method (Elementu finituen metodo)

FFNN Feed-Forward Neural Network (Aurrerantz elikatutako neurona-sare)

GDRM Generalized Deep Ritz Method (Deep Ritz metodo orokortua)

GPU Graphics Processing Unit (Prozesamendu grafikoko unitate)

MC Monte Carlo

NN Neural Network (Neurona-sare)

ODE Ordinary Differential Equation (Ekuazio diferentzial arrunt)

PDE Partial Differential Equation (Deribatu partzialetako ekuazio)

PINN Physics-Informed Neural Network (Fisikatik informatutako neurona-sare)

SGA Stochastic Gradient Ascent (Gradiente igoera estokastiko)

SGD Stochastic Gradient Descent (Gradiente jaitsiera estokastiko)

SGDM SGD with Momentum (SGD momentum-arekin)

TF TensorFlow

TF2 TensorFlow 2

UAT Universal Approximation Theorem (Hurbiltasun unibertsalaren teorema)

WANs Weak Adversarial Networks (Sare aurkari ahul [pluralean])

List of Figures/Irudien zerrenda

List of Tables/Taulen zerrenda

Chapters/Kapituluak

1. Sarrera[*]

1.1. Motibazioa

Deribatu partzialetako ekuazioek (PDE-ek)[1] balio handia dute gizartearentzat fenomeno biologiko, fisiko edo sozial anitzak modelatzeko duten gaitasun zabalagatik [73, 207, 70, 192]. Ekuazio horietan deribatuak erabiltzeak aukera ematen digu erlazio konplexuak eta haien denboraren eta/edo espazioaren gaineko aldaketaren tasak deskribatzeko. Adibidez, honako fenomeno hauek PDE-en bidez modelizatutako ereduak onartzen dituzte: bero-transferentzia [102, 88], eremu elektromagnetikoak [106, 221], fluidoen dinamika [23, 14, 223], populazioen eboluzioa [96, 160, 38], eta finantza [26, 101] edo osasun [193, 141, 165] arloko iragarpenak.

Hala ere, egoera fisiko edo sozial bat deskribatzeko ekuazio bat ezartzea lehen urratsa baino ez da. Arazo mota ezberdinak sortzen dira PDEak erabiltzean, eta horietara hurbiltzeko modua eskura dauden konputazio-baliabideen araberakoa da.

Aurreranzko problemetan, PDE bat eta hasierako edo mugaldeko baldintza batzuk betetzen dituen funtzioa zehaztea da interesatzen zaiguna. Horrela, aurreranzko problemen soluzioek modelatutako fenomenoaren buruzko ezagutza eman diezagukete, eta hori erabil daiteke iragarpenak egiteko, normalean soluziotik hartutako post-prozesamenduetako neurketen bidez.

Alderantzizko problemetan, soluzioaren neurriak ditugu, baina ekuazioan parametro espezifikoek duten balioa aurkitu nahi izaten da. Zeharkako arazo bat da, emandako neurketekin bat datorren ebazpen bat ematen duten parametroak zehaztu behar baitira [210]. 1.1. adibidean eremu elektromagnetikoetan dauden aurreranzko eta alderantzizko problemen eredu posible bat erakusten da [72].

[*]See Appendix A for the English version/Ikus A. eranskina ingelesezko bertsiorako.

[1]Ingelesetik, *Partial Differential Equation (PDE)*.

1.1. adibidea (Eremu elektromagnetikoak)**.** Maxwellen ekuazioek lau lege fisiko ezagunen arabera modelatzen dute eremu elektromagnetikoa [72, 106]:

$$\begin{cases} \nabla \times \mathbf{E} = -j\omega\boldsymbol{\mu}\,\mathbf{H} - \mathbf{M}, & \text{Faradayren Legea,} \\ \nabla \times \mathbf{H} = (\boldsymbol{\sigma} + j\omega\boldsymbol{\varepsilon})\mathbf{E} + \mathbf{J}, & \text{Amperèren Legea,} \\ \nabla \cdot (\boldsymbol{\varepsilon}\mathbf{E}) = \rho_f, & \text{Gaussen Elektrizitatearen Legea,} \\ \nabla \cdot (\boldsymbol{\mu}\mathbf{H}) = 0, & \text{Gaussen Magnetismoaren Legea.} \end{cases} \tag{1.1}$$

Hemen, **E** eta **H** elektrizitatearen eta magnetismoaren eremuak dira frekuentzien domeinuan, hurrenez hurren; **J** eta **M** iturri terminoak dira; $\boldsymbol{\sigma}$ ingurunearen eroankortasun elektrikoa da; $\boldsymbol{\varepsilon}$ permitibitate elektrikoa da; $\boldsymbol{\mu}$ iragazkortasun magnetikoa da; ρ_f karga elektrikoaren dentsitatea da; j unitate irudikaria da; eta ω frekuentzia angularra da. Orduan, eremu elektromagnetikoen aurreranzko eta alderantzizko eredu posible bat $\{\boldsymbol{\sigma}, \boldsymbol{\mu}, \boldsymbol{\varepsilon}\}$ parametroen eta $\{\mathbf{Z}\}$ neurketen mende osa daiteke, **Z** inpedantzia tentsorea izanik eta honako era honetan definituta egonik: $\mathbf{E} = \mathbf{Z}\mathbf{H}$. Xehetasun gehiagoren bila, ikus, adibidez, [9]. 1.1. irudian eredu honen laburpen grafikoa erakutsi da.

$$\begin{tikzcd} \begin{array}{c}\text{Parametroak}\\ \{\boldsymbol{\sigma}, \boldsymbol{\mu}, \boldsymbol{\varepsilon}\}\end{array} \arrow[r, "\text{Ebatzi PDEa}"] \arrow[rr, bend left, "\text{Aurreranzko problema}"] & \begin{array}{c}\text{Soluzioa}\\ \{\mathbf{E}, \mathbf{H}\}\end{array} \arrow[r, "\text{Post-prozesaketa}"] & \begin{array}{c}\text{Neurketak}\\ \{\mathbf{Z}\}\end{array} \arrow[ll, bend left, "\text{Alderantzizko problema}"] \end{tikzcd}$$

1.1. irudia: Aurreranzko eta alderantzizko problemen diagrama eremu elektromagnetiko batean.

Aurreranzko problemak ebazteko, orokorrean, alderantzizko problemak ebazteko baino baliabide gutxiago behar dira. Behin parametroak aukeratuta, aurreranzko problema bat PDE simulazio bakar bat burutzean datza. Aitzitik, alderantzizko problema batek, aurreranzko-problemen urratsez urratseko ebazpena eskatzen du, urrats bakoitzean parametroen aukeraketa doituz aurreko aurreranzko simulazioan lortu den emaitzaren arabera [210, 103].

Bi arazo motak lotuz, problema *parametrikoak* ditugu, non helburua soluzio edo neurketen portaera parametroen funtzio gisa aztertzea baita. Soluzioa parametro baten edo batzuen araberakoa izan daiteke, eta parametro horien aldaketek sistemaren portaerari nola eragiten dioten azter dezakegu. Alternatiboki, ikuspegi parametrikoa aurreranzko problema gisa har daiteke, non ekuazioaren parametroek soluzioaren aldagaien rola hartzen baitute. Tipikoki, aurreranzko problema parametrikoa ez da lineala sartutako aldagai berriekiko; eta horrek problema ebazteko gaitasuna izugarri mailakatzen eta eragozten du.

Tesi honetan, PDE lineal parametrikoak eta ez parametrikoak ebazteko zereginari soilik helduko diogu, non aplikazio eta lan-esparru askotan kritikoa baita. Gainera, PDEak esango diegu bai dimentsio bakarreko ekuazio diferentzialei —oro har, *ekuazio diferentzial arruntak (ODEak)*[2] deituak— bai eta dimentsio handiagokoei ere.

1.2. Zenbakizko metodo tradizionalak

PDEak ebazteko hainbat metodo daude, oro har, bi kategoriatan sailka daitezkeenak: metodo analitikoak eta zenbakizkoak.

Metodo analitikoek PDEaren soluzio zehatz bat aurkitzeko teknika matematikoak erabiltzea eskatzen dute, hala nola, aldagaien bereizketa, transformatu integralak edo analisi konplexua [205, 87, 213]. Hala ere, metodo horiek, askotan, PDE eta geometria nahiko sinpleetara mugatzen dira. Gainera, PDEa analitikoki ebatz daitekeenean ere, gerta daiteke emaitzaren adierazpena konplikatua izatea (adibidez, potentzia infinitu sorta baten moduan adieraztea). Horrelakoetan, zaila izan daiteke hori interpretatzea eta kasu praktikoetan aplikatzea.

Bestalde, zenbakizko metodoak PDEaren soluzioa hurbiltzen dute algoritmo konputazionalen bidez. Oro har, metodo hauek erraz interpreta edo berreskura daitezkeen hurbilketak proposatzen dituzte (adibidez, funtzio sinpleen konbinazio lineal finituak erabilita). Jarraian, labur aztertuko ditugu PDEak ebazteko erabiltzen diren hiru zenbakizko metodo ezagunen alderdi nagusiak.

Diferentzia finituen metodoak (FDMak)[3] PDEaren domeinu espaziala eta/edo denbora tartea azpidomeinuen kopuru finitu batean banatzen du [203, 178, 130]. Orduan, puntu diskretu horietako deribatuen ebaluazioak diferentzia finituak eta hurbileko puntuen balioak dituzten ekuazio aljebraikoak ebatziz hurbiltzen dira. FDMak PDE bat ekuazio linealen sistema batean bihurtzen du, aljebra matrizialeko tekniken bidez ebatz daitekeena. Kontzeptualki sinplea izan arren, desafiatzailea gerta daiteke arazo konplexuetarako edo domeinu irregularretarako diseinatzen denean. Zehazki, *dimentsioen maldizio* deritzona jasaten du [29, 30], non inplikatutako matrizearen tamaina esponentzialki hazten baita problemaren dimentsioarekin.

[2]Ingelesetik, *Ordinary Differential Equation (ODE).*
[3]Ingelesetik, *Finite Difference Method (FDM).*

Era berean, *elementu finituen metodoak (FEMak)*[4] [100, 39, 138, 184] diskretizazio-sareetan oinarritutako eskema bat proposatzen du, non soluzio hurbildua aurrez ezarritako funtzio batzuen konbinazio lineal finitu baten forman adierazita baitago (normalean, zatikako polinomioak) euskarri lokalekin. Euskarria berariaz diseinatzen da domeinuko eskualde espezifikoetan, elementu deiturikoetan, emaitza bezala lortzen den matrizea sakabanatua izateko. Bereziki, FEMa egokia da PDEak formulazio bariazionaletan daudenean, baina FDMaren antzeko zailtasunak ditu.

Metodo espektralak [81, 36, 46] zenbakizko metodo mota bat dira, eta euskarri globala duten oinarriko funtzio ortogonalen konbinazio linealen bidez hurbiltzen dituzte funtzioak, hala nola, Chebyshev polinomioak edo Fourier serieak. Metodo horiek oso zehaztasun handia lor dezakete eta bereziki erabilgarriak dira portaera oszilakor handiko soluzio leunetarako, baina konputazio-ikuspegitik bideraezinak izan daitezke geometria konplexuetarako.

Funtsean, aipatutako zenbakizko metodoek oinarri finitu-dimentsional bat aurrez ezartzea eta dagokion konbinazio linealaren koefizienteen bidez hurbilpena parametrizatzea dute lan-eremu. Diskretizazio-sare bat erabiltzen denean (FDMetan eta FEMetan), horrek behar bezain fina izan behar du soluzio zehatzaren portaera konplexuak behar bezala antzemateko, baina gehiegizko finketaren eragozpen konputazionalean erori gabe. Metodo espektraletan, erronkarik handiena da oinarri ortogonaleko funtzioak domeinu arbitrarioetarako hautatzea.

1.3. Neurona-sareak hurbiltzaile unibertsal gisa

Neurona-sare artifizialek (ANNek)[5], edo, laburtzeko, *neurona-sareek (NNek)*[6], funtzioak hurbiltzeko alternatiba bat eskaintzen dute, aurretik azaldutako ohiko konbinazio linealen ikuspegiarekiko ezberdina dena.

NNen formarik oinarrizkoena *aurrerantz elikatutako neurona-sareak (FFNNak)*[7] dira [190, 105, 12, 77, 195], garuneko NN biologikoen egituran eta funtzionamenduan inspiratzen direnak, eta elkarren artean konektatutako *neuronen* bidez osaturik daudenak. Neuronak geruzetan antolatzen dira, eta informazioa norabide batetik bestera doa, geruza batetik hurrengora. Neurona bakoitzak aurreko geruzako neuronen informazioa jasotzen du eta batura haztatu bat kalkulatzen du. Batura hori aurreko geruzako neurona *guztietatik* abiatuta kalkulatzen denean, FFNNa *guztiz konektatuta* dagoela esango dugu. Batuketa hori aktibazio ez-linealeko funtzio batetik pasarazten da, gero emaitza hurrengo geruzako neu-

[4]Ingelesetik, *Finite Element Method (FEM)*.
[5]Ingelesetik, *Artificial Neural Network (ANN)*.
[6]Ingelesetik, *Neural Network (NN)*.
[7]Ingelesetik, *Feed-Forward Neural Network (FFNN)*.

ronetara transmititzeko. Guztiz konektatutako FFNNen deskribapen formala 2. kapitulura atzeratuko dugu.

Guztiz konektatutako FFNNak hurbiltzaile unibertsalak dira. Era arinean esanda, emandako ia edozein funtzio nahi den adina hurbiltzeko gaitasuna dute.

Hurbiltasun unibertsalaren teoremaren (UATren)[8] lehen bertsioetako bat *zabalera arbitrarioko* kasua da. Bertan frogatzen da ezkutuko geruza bakarreko FFNNak funtzio jarraituen hurbiltzaile unibertsalak direla, behar bezain zabalak baldin badira. Emaitza hori paraleloki eta independenteki frogatu zen 1989an, "sigmoid" aktibazio funtzioetarako [54] eta aktibazio-funtzio ez-konstante, mugatu eta monotonoki gorakorretarako [98]. Azken lan horren egile nagusiak bi urte geroago frogatu zuen ez dela aktibazio-funtzioaren hautaketa espezifikoa FFNNei hurbiltzaile unibertsal izateko ahalmena ematen diena, baizik eta FFNNaren arkitektura bera [97]. Horrekin lotuta, geroago erakutsi zen baliokideak direla hurbilketa unibertsalaren ezaugarria eta aktibazio ez-polinomikoaren funtzioa izatea [129, 175].

UATrako zabalera arbitrarioaren kasuaren bertsio "duala" zabalera mugatua finkatzean eta *sakontasun arbitrarioa* ezartzean datza. Zenbait egilek formulazio hori aztertu dute 2000ko hamarkadaren hasieratik [83, 118], ReLU aktibazio-funtzioetan arreta berezia jarriz [230, 140, 90, 89]. Era berean, *zabalera eta sakonera mugatuko* emaitzak aurkitzen ditugu. Adibidez, [146]-k baieztatzen du FFNN baterako existitzen dela bi sakonerako eta zabalera mugatuko hurbiltasun unibertsalaren ezaugarriak dituen sigmoidal moduko aktibazio funtzio bat. Gainera, [85]-ek frogatu zuen geruza ezkutu bakarreko eta zabalera mugatuko FFNNek aldagai-bakarreko funtzioetarako hurbiltasun unibertsalak izaten jarraitzen dutela, oro har, aldagai-anitzeko funtzioetarako ez dena betetzen.

Azken hiru hamarkadetan, UATren hainbat hedapen garatu dira non ez-jarraituak diren aktibazio funtzioak [129], domeinu ez-trinkoak [118], eta arkitektura eta topologia alternatiboak landu baitituzte [118, 136]. Zehazki, [22]-k UATren bertsio kuantitatibo bat ezartzen du FFNNen *dimentsionaltasunaren maldizioa* gainditzeko gaitasuna aztertuz, zatika linealak diren funtzioen espazioekin alderatuta. Gai horri buruzko eztabaida zabalagoak aztertzeko, [176, 19, 24, 226] lanak eta horietan jasotako erreferentziak aipatzen ditugu.

Azken urteotan, hainbat ekimen eta ikerketek ebidentzia edo froga enpirikoen bidez erakutsi dute arkitektura mota alternatiboek edo haien arteko konbinazio egokiek FFNNen hurbiltzeko eta kalkulatzeko gaitasuna gaindi dezaketela. Besteak beste, arkitektura konboluzionalak, errepikariak eta hondarrarenak (ingelesezko, *convolutional*, *recurrent* eta *residual* terminoetatik eta CNN, RNN eta ResNet laburduren bidez adierazitako NNak, hurrenez hurren) dira nabarmenenak [52, 59, 132, 206, 77, 93, 222, 4, 67, 220].

[8]Ingelesetik, *Universal Approximation Theorem (UAT)*.

Tesian zehar, guztiz konektatutako FFNN arkitekturetara mugatuko gara. Beraz, NN eta FFNN terminoak bereizi gabe irakur daitezke hemendik aurrera, kontrakorik esaten ez bada. Gainera, nabarmentzekoa da erabilitako arkitekturaren hurbilpen gaitasunen azterketa tesi honen irismenetik kanpo geratzen dela. Bestela esanda, (era inozoan) onartuko dugu esperimentazioan zehar hautatutako arkitekturek "behar adina gaitasun dutela hurbiltzeko".

1.4. Berrikuspen literarioa

Azken urteotan, PDEak NNen bidez ebazteko lan ugari sortu dira.

1.4.1. NNak erabiliz PDEak ebazteko lehenengo lanak

1.3. ataleko terminoei jarraituz NNen bidez PDEak ebazteko lehenengo lan dokumentatua 1994koa[9] da [63]. Aurreko lan batzuek PDEak ebazteko NNak erabili arren (ikus, adibidez, [127, 216, 152]), [63] proposamena izan zen PDE baten soluzio baten irudikapena ustiatu zuen lehenengoa, hurbilketa unibertsalaren propietatean oinarritutako NN baten bidez.

Lan honek FFNN arkitektura proposatzen du, aktibazio sigmoidaleko funtzioekin, mutur-baldintzak dituen PDE baten soluzioa hurbiltzeko —normalean, *mutur-balioen problema (BVPa)*[10] deitzen dena—. Espezifikoki, BVPa honela deskribatuta dago:

$$\begin{cases} Au = f, & \Omega\text{-n}, \\ Du = g, & \partial\Omega\text{-n}, \end{cases} \tag{1.2}$$

non Ω domeinu ireki eta mugatua baita, $\partial\Omega$ domeinuaren muga da, f emandako iturri-funtzio bat da, eta A eta D operadore (diferentzial/mugadun) jakin batzuk dira. Egileek honako hau adierazi zuten hitzez hitz (itzulita)[11]: "(1.2). ekuazioaren soluzio sendo bat $\mathbb{U}$ espazioko funtzioen elementu bat da, PDEa eta mutur-baldintzak betetzen dituena. [...] Hala ere, $\mathbb{U}$ espazio horretan hurbiltzaile 'unibertsal' bat baldin badago (hau da, behar adina parametro dituen eta espazioko edozein elementurekiko behar adina hurbil dagoen funtzio bat badago), orduan, hurbiltzaile hori bilatzen ari garen soluziorako aukera ona izan daiteke. Bi funtzioren arteko hurbiltasuna $\mathbb{U}$-ko dentsitatearen kontzeptuaren bidez azaltzen da. Definizio matematiko zehatz baterako, ikus Hornik et al. [98]".

[9]Argitaletxeak 1992ko abuztuan jaso zuen, 1993ko abuztuan berrikusi zen eta 1994ko martxoan argitaratu zen lehen bertsioa.

[10]Ingelesetik, *Boundary-Value Problem (BVP)*.

[11]Jatorrizko sinboloak eta erreferentziak egokitu egin dira gure aurkezpenerako. [...] ikurrak esan nahi du jatorrizko testuaren zati bat ez dela jaso.

Orduan, PDEaren ebazpen-zeregina hurrengo *funtzio objektiboaren* minimizazio bezala ezar daiteke:

$$\mathcal{F}(u_{\mathrm{NN}}) = \int_{\Omega} \|Au_{\mathrm{NN}} - f\|^2 + \int_{\partial\Omega} \|Du_{\mathrm{NN}} - g\|^2, \tag{1.3}$$

non u_{NN} FFNN baita. Jatorriz, $\|\cdot\|$ zehaztugabea zen, baina, ziurrenik, 2-norma diskretutzat hartuko zen $\mathcal{F}$-ren minimizazioa L^2-minimizazio-eskeman uler dadin ([53]-n iradokitzen den moduan).

Aurkezpen horren ondoren, egileek esan zuten[12]: "Orain, Au eta Du modu itxian kalkula daitezke x terminoaren mende. Ω-n eta $\partial\Omega$-n puntuak hautatzen ditugu eta (1.3) formula aplikatzea proposatzen dugu. Beraz, funtzio objektiboa minimiza dezakegu [NNtik ikas daitezkeen parametroetarako balioak aurkitzeko (hortik dator (1.2)-ren soluzio hurbildua)]". Egileek zehaztu zuten funtzio objektiboaren minimizazioa "ia-Newton metodo" baten arabera eta "diferentzia finituko gradienteak"erabiliz egin zutela (ikus, adibidez, [61] eta [156] erlazionatutako erreferentzia gisa).

Harrezkero, hainbat lan sortu ziren NNak erabiliz PDE ebazpenaren esparruan. Jarraian, 1990eko hamarkadaren amaieratik 2010eko hasierara arteko garrantzitsuenetako batzuk errepasatuko ditugu.

1994an, [154, 153, 71] lanek FFNN bat erabiltzea proposatu zuten, geruza ezkutu bakarreko arkitekturarekin eta "muga gogorreko"aktibazio funtzioak erabiliz (jatorriz horrela deitu zieten egileek), PDE linealak eta ez-linealak ebazteko. Aktibazio-funtzio hori hautatzeak aukera ematen du NN guztiak zatika-linealak diren funtzio familia gisa ulertzeko, eta, horrela, PDEaren soluzioa termino horietan hurbiltzeko. 1998an, [124] eskema bat proposatu zuen mutur-baldintzak modu "gogor" batean inposatzeko, FFNN (muturrik gabeko) arkitektura filtro batekin konposatzean ([63]-n ez bezala, non mutur-baldintzak "leunki" zehazten baitziren helburu-funtzioaren bitartez). 1999an, [164]-k hainbat emaitza eta diseinu dokumentatu zituen NN bidezko inplementazio ezberdinak erabilita, aldagai anitzeko funtzioen eta horien deribatu partzialen zenbakizko hurbilketarako. Horien artean, PDE aplikazioak daude, fluxu biskoelastikoak aztertzeko inguraketa-elementuen metodo baten parte gisa. 2000. urtean, NNetan oinarritutako eredu bat aurkeztu zen lehen ordenako zenbait PDE ebazteko, kontrol-sistema ez-linealetan interes berezia zuena, eta [125]-ek FFNN motako bi arkitektura ezberdinez osatutako eredua aurkeztu zuen, geometria irregularretan mutur-baldintzak dituzten PDEak ebaztera iristeko.

2001etik 2010eko hamarkadaren erdialdera, arestian aipatutakoen jarraipentzat har daitezkeen hainbat lan daude. Zehazki, [124]-k eta [94]-k aurreka-

[12]Lehen bezala, jatorrizko sinboloak eta erreferentziak egokituta daude. Kortxete arteko testuzatiak, [`testua`], jatorrizko testua aldatu edo ordezkatu dugula adierazten du ulergarriagoa izateko asmoarekin.

ri esanguratsuak ezarri zituzten arkitektura-diseinuetarako eta entrenamendu-konfigurazioetarako, hurrenez hurren, honako lan hauetarako: [1]-ek PDEak ebazteko NNak eta algoritmo ebolutiboak eta horien mutur-baldintzak konbinatzen dituen metodo bat proposatu zuen; [202]-k NNak erabili zituen Kuramato-Sivashinsky eta Navier-Stokes ekuazio ez-linealen dinamika aztertzeko; [147]-k metodo hibrido bat aurkeztu zuen ordena handiko PDEak ebazteko; [199]-k Schrödingerren ekuazioa landu zuen FFNN erabilita, energia-funtzioaren eskema hobetu batekin eta gainbegiratu gabeko entrenamenduaren bidez; [28]-k minimizazio-tekniken eta kokapen-metodoen konbinazio bat proposatu zuen NNen bidez soluzioetarako hurbilpen itxiak ezartzeko; [215]-ek FFNNak erabili zituen bilakaera gramatikalarekin eta optimizazio lokalarekin batera, ODE eta PDE sistemak ebazteko (ikus [214] bilakaera gramatikalean oinarritutako NNan entrenamenduan izandako aurrekari baterako); eta [151]-k NNan oinarritutako metodo bat aurkeztu zuen, domeinu irregularrak dituzten PDEak ebazteko, mutur-baldintza mistoekin. Gainera, PDE-en bereizmen-esparruen bi luzapen mota nagusi ditugu NNetan oinarrituak: oinarri-erradiala duten NNak[13] [142, 143, 108, 144, 109, 113, 145, 76, 13, 75, 47, 121]; eta FEMean inspiratutako NNak [31, 60, 234, 183, 148, 15, 110, 120] —batzuetan *elementu finituen neurona-sareak* deituak—. Aipatutako lan asko berrikusteko, [227] kontsulta daiteke.

1.4.2. NNen bidez PDEak ebazten TensorFlow-tik aurrera

TensorFlow (TF) [3, 2] kode irekiaren lehen bertsioaren aurretik 2015ean, *diferentziaketa automatiko (ADa)*[14] eraginkorrik ez egoteak erronkak planteatzen zituen NNetan oinarritutako ikerketan. Gaur egun, ADa funtsezkoa da NNen gradienteak kalkulatzeko entrenamenduan zehar [82, 27, 150]. Hori ez zegoenean, ikertzaileek eta profesionalek eskuz diseinatu behar izaten zuten gradienteen kalkulu-eskema, eta horrek, normalean, denbora asko eramaten zuen eta akatsak egiteko joera areagotu egiten zen, batez ere ereduak konplexuak ziren heinean. Ondorioz, berrikuntza eta esperimentazioa oztopatu egiten ziren. Ideia berriak eta eredu mota desberdinak azkar probatzeko ezintasunak aurrerapena moteltzen zuen, ikerlari berriei eremu horretan sartzea zailduz.

2015ean TF [3, 2] eta 2017an PyTorch [171, 172] sartu zirenean, ADa eskuragarriago bihurtu zen ikertzaileentzat, eskuzko konputazioaren diseinuetatik askatuz, eta garapen eta berrikuntza azkarragoak bultzatuz. NNetara bideratutako plataforma horien agerpenari esker, zeinak ADetan oinarrituta baitzeuden eta erabilerrazak baitziren, 2010eko hamarkadaren amaieratik aurrera PDE-en ebazpenaz arduratutako komunitateetan NNetan oinarritutako bideak ikertzeko

[13]Ikusi [170] oinarri-erradial NNen UAT aurrekari baterako.
[14]Ingelsetik, *Automatic Differentiation (AD)*.

interesa piztu zen.

Zehazki, *fisikatik informatutako neurona-sareak (PINNak)*[15] PDE-en ebazpenaz arduratutako komunitatean NNak erabiltzearen aurrekari garrantzitsuenetakotzat har daitezke, bereziki azken bost urteetan. PINNen lehen bertsioa bi zatitan argitaratu zen 2017an [180, 181]. Han, egileek datuetan oinarritutako alternatibak proposatu zituzten PDEak ebazteko ([180]) edo aurkitzeko ([181]). "Ebaztea" eta "aurkitzea" bata bestearengandik bereizteko, pentsa dezagun koefiziente (parametro) jakin batzuen mende dagoen operadore diferentzial bat duen PDE batean. Alde batetik, koefiziente guztien balioak ezagutzen baditugu, PDEan inplikatutako lege diferentzialerako sarbide osoa eskuragarri izango dugu. Beraz, lehen aipatutako "lehen laneko" [63][16] terminoetara murritz gaitezke PDEaren soluzioa hurbiltzeko (gogoratu 1.4.1. ataleko lehenengo zatia). Bestalde, koefiziente batzuk ezezagunak badira, baina PDEaren soluzioaren lagin batzuk izan baditzakegu espazio-denborako hainbat puntutan, ikaskuntza-eskema gainbegiratu bat ezar dezakegu, non NN bat (PDEaren soluzioa irudikatzen duena) eta parametro entrenagarri gehigarri batzuk (PDEaren koefiziente ezezagunak adierazten dituztenak) PDEa eta etiketatutako datuak asetzeko murrizketarekin entrenatzen baitira.

PINN terminologiarekin jarraituz, formulazio bariazionalak jorratzen dituzten lanak aurkitzen ditugu, *PINN (hp-)bariazionalak ((hp-)VPINNak)* deituak [115, 116, 188]; kontserbazio-legekoak, *PINN kontserbatzaileak (cPINNak)* deituak [107]; zatikizko ordena duten PDE-entzako, *PINN zatikidunak (fPINNak)* deituak [168]; eta datu zaratatsuetarako proposamen bayesiarrak, *PINN bayesiarrak (B-PINNak)* deituak [229]. PINNek mundu errealeko fenomenoetan dituzten aplikazioen artean, honako hauek nabarmentzen ditugu: [149]-k abiadura handiko fluxuetarako, [157, 99]-k potentzia-sistemetarako, [200]-ek ultrasoinuen bidezko kuantifikazio ez-suntsitzailerako, [43]-k beroa transferitzeko eta [42, 111]-k fluidoen mekanikarako. [53, 126, 35]-etara jotzen dugu PINNetan lotutako berrikuspen bibliografiko zehatzagoetarako.

Bestela, PDE-en NNetan oinarritutako bereizmenaren helburuari jarraituz, *deep* izena hartzen duten lanak ere proposatu dira. Batzuk aipatzekotan: [68, 69]-k *Deep Ritz metodoa (DRMa)* aurkezten dute, PDE-en bariazional-formulazioan inplikatutako Ritz-en energia-funtzioa minimizatzen duena ([139, 65, 135, 217] lanak aipatzen ditugu analisi eta hedapen gehigarrietarako); [201]-ek *Deep Galerkin*

[15]Ingelesez, *Physics-Informed Neural Networks (PINNs)*.

[16]Bitxia bada ere, ez [180, 181]-ek ezta antzeko egiletza-berrikuspenek ere, esaterako [182, 114], ez dute aipatzen [63]-ren lana. Berrikuspen orokorragoak kontsultatu behar ditugu (egiletzarekiko independenteak) erlazio hori aurkitzeko. Adibidez, [53]-k baieztatzen du (itzulita): "Ikaskuntza automatikoko algoritmo batean aurretiazko ezagutza txertatzearen kontzeptua ez da guztiz berria. Izan ere, Dissanayake eta Phan-Thien-ren [63] lana lehen PINNetakotzat har daiteke".

metodoa (DGMa) proposatzen du ([49, 131, 7, 198] hedapen, aplikazio eta konparazio gehigarrietarako); [45]-ek *Deep Least-Squares (DLS) metodoa* proposatzen du ([44, 137, 161] hedapen gehigarrietarako); eta [212]-k *Deep Fourier Residual (DFR) metodo* bat aurkezten du, [211]-n Maxwell denbora-armoniko ekuazioaren duela gutxiko hedapenarekin.

PDE parametrikoen bereizmenari buruzko zenbait lan berri ere aurki ditzakegu. Garrantzitsuenen artean: [134]-k maila anitzeko grafoen NN bat proposatzen du; [133]-k Fourierren espazioan parametrizazio bat erabiltzen du problema parametrikoetarako egokia den arkitektura adierazkor eta eraginkorrarekin; [34]-k NNak modeloen murrizketarekin konbinatzen ditu; [117]-k NNak erabiltzen ditu magnitude fisiko interesgarria parametrizatzeko sarrera-koefizienteen arabera; [122]-k PDE parametrikoetarako NNen bidezko mapa parametrikoen hurbilgarritasuna teorikoki aztertzen du; eta [173]-k PINNak bertsio parametriko batera hedatzen ditu, "metalearning" ikuspuntu deritzonaren bidez.

1.5. Ekarpen nagusiak

Tesi honek hiru ekarpen nagusi proposatzen ditu PDEak NNen bidez ebazteko: (i) elementu finituetan oinarritutako ikaskuntza sakoneko ebazle bat PDE parametrikoetarako; (ii) hondarren minimizazio esparru orokor bat, Ritz minimizazio bikoitzeko eskema batean oinarritua; eta (iii) zenbakizko memorian oinarritutako integrazio-estrategia bat entrenamenduan zehar integrazio-errorea modu eraginkorrean murrizteko.

1.5.1. Deep elementu finituen metodoa

Alderantzizko problemak ebaztea balio handikoa da gure gizartearentzat [228, 123] ingeniaritzako hainbat diziplinatan duen aplikagarritasunagatik, hala nola, irudi prosezakuntzan [33], elektromagnetismoan [10], ebaluazio ez-suntsitzaileetan [166] eta geofisikan [189], batzuk aipatzearren. Horiek ebazteko hainbat metodo daude, gradienteetan eta estatistikoetan oinarritutakoak barne [210, 16]. Metodo tradizional horiek alderantzizko soluzioa puntualki ebaluatu ohi dute (hau da, neurri multzo jakin baterako), baina oso gutxitan ematen dute alderantzizko operadore baten irudikapen globala. Hori gainditzeko eta alderantzizko operadore oso bat hurbiltzeko, NNak erabil daitezke (ikus, adibidez, [104, 231, 167, 196, 11, 197]), hurbilketa unibertsalaren propietateagatik.

Alderantzizko problemak ebazteko NNen entrenamendua *prozesamendu grafikoko unitateetan (GPUetan)*[17] egiten da, batez ere, datu-base handiekin edo NNen arkitektura konplexuekin lan egiten denean. Egoera horietan, komeni da

[17]Ingelesetik, *Graphics Processing Unit (GPU)*.

PDE parametrikoak ebazteko gai den metodo eraginkor bat izatea, GPUan inplementatua, NN moduan, alderantzizko arazoa entrenatzean parametro hautagaien gainean azkar iteratzeko. Baldintza horietan, alderantzizko eredua entrenatzeko bi ikuspegi nagusi daude: (i) aurreranzko eredu parametrikoa aurrez entrenatzea, ondoren denbora errealean ebazle/ebaluatzaile gisa erabiltzeko, edo (ii) aurreranzko eta alderantzizko ereduak aldi berean entrenatzea (auto) kodifikatzaile-dekodifikatzaile eskema batean [77].

Tesi honen lehen ekarpen nagusi gisa, **NNetan oinarritutako eredu bat proposatzen dugu, FEMean inspiratutako aurreranzko ebazle parametriko gisa jarduten duena**. Zehazki, gure NNa arkitektura elementu-finituen diskretizazio-sarearen mende dago, dinamikaren eragina imitatuz sare-finketak aplikatzean [18, 6, 208].

Proposatutako metodoaren, *Deep elementu finituen metodoa (DeepFEMa)*[18] edo *elementu finituen metodo sakona* deitua, aurkezpena eta inplementazioa *dimentsio bakarreko (1Dko)*[19] problemetara mugatzen da, zatika-linealak diren hurbilketak eta finketa uniformeak erabiliz. Dimentsio handiagoko problemetarako, zatika polinomikoak diren maila handiagoko hurbilketetarako eta/edo diskretizazio-sare adaptatiboetarako hedapena berehalakoa da, baina lan honen irismenetik haratago dago. DeepFEMa problema positibo-definituetan eta mugagabeetan probatzen dugu, parametro konstante eta zatika-konstanteekin. Oro har, esperimentuek hurbilketa onak erakusten dituzte; hala ere, batzuetan, optimizatzaileak eta ganbiltasun-mugek zehaztasun handiko soluzioak lortzea eragozten digute.

1.5.2. Deep Ritz metodo bikoitza

Ikuspegi abstraktutik, formulazio bariazionalek [155] (non, adibidez, FEMa oinarritzen baita) BVPak ekuazio funtzionaletan bihurtzen dituzte honako era honetan:

$$Bu = l \in \mathbb{V}', \tag{1.4}$$

non $\mathbb{U}$ eta $\mathbb{V}$ proba- eta test-espazioak (normadunak) deitzen baitira, hurrenez hurren; $\mathbb{V}'$ espazioak $\mathbb{V}$ espazioaren duala adierazten du; eta $B : \mathbb{U} \longrightarrow \mathbb{V}'$ eta $l \in \mathbb{V}'$ jatorrizko operadore diferentzialaren eta iturburu terminoen “analogo bariazionalak” dira, hurrenez hurren. [58, 150. orrialdea, (2.1)–(2.3) ekuazioak] aipatzen dugu xehetasun gehiagorako. Zehazki, honako baieztapena azpimarratzen dugu (itzulita): “problema bariazionalen izaera dagokion operadoreak espazio dual batean balioak hartzean datza”.

Formulazio abstraktu horren pean, *hondar-minimizazioa* (1.4) birformulazio

[18]Ingelesetik, *Deep Finite Element Method (DeepFEM)*.
[19]Ingelesetik, *one-dimensional (1D)*.

gisa sortzen da, honako era honetan:

$$\min_{u\in\mathbb{U}} \|Bu - l\|_{\mathbb{V}'}, \tag{1.5}$$

non norma dualaren erabilera $\|\cdot\|_{\mathbb{V}'}$ ezinbestekoa baita, $Bu - l$ espazio dualean ($\mathbb{V}'$-n) balioak hartzen dituelako [58, 151 orrialdea, (2.5) ekuazioa].

Norma dualen gorenaren (ingelesez, *supremum*) definizioari jarraituz, proba- eta test-espazioen gaineko aulki-puntuaren arazoarekin (min-max[20]) amaitzen dugu:

$$\min_{u\in\mathbb{U}} \max_{v\in\mathbb{V}\setminus\{0\}} \frac{\langle Bu - l, v\rangle_{\mathbb{V}'\times\mathbb{V}}}{\|v\|_{\mathbb{V}}}. \tag{1.6}$$

Hemen, $\langle\cdot,\cdot\rangle_{\mathbb{V}'\times\mathbb{V}}$-k parekatze duala adierazten du eta $\|\cdot\|_{\mathbb{V}}$-k test-espazioan dagoen norma.

NNen testuinguruan, [232, 20]-k hondar-minimizazioa bi NN erabiliz egitea proposatu zuten, proba- eta test-funtzioak irudikatzeko min-max optimizazio-estrategian (1.6). Egileek, *sare aurkari ahul (WAN)*[21] deitu zioten metodoari. Jatorriz, [232, 20]-k saiakuntzan arau azpioptimotzat jo bazituzten ere (L^2-norma aukeratu zuten H^1-norma egokiaren ordez), eragozpen nagusia da min-max ikuspegi horren azpian dagoen ezegonkortasuna, proba minimizazio iterazio bakoitzean inplikatutako test unitarioaren maximizatzailearen bilaketan (hau 4. kapituluan erakutsiko dugu).

entrenamendua *geruzaz geruza* edo *hasieratik amaieraraino* nola egiten dugun kontuan hartuz, hurrenez hurren. Kontuan izan aldagai berriak $\mathbf{r}^{(2)}_{\text{NN}}$-ri bakarrik dagozkiola. Berrentrenamenduaren hasieran $\mathbf{r}^{(2)}_{\text{NN}} = 0$ izan dadin aldagai berriak hasieratuko ditugu (adibidez, $\mathbf{W}^{(2)}, \mathbf{b}^{(2)} = 0$ hasieratuz), eta aurreko urratsean ikasitako aldagaiak, $\theta^{(1)}$, mantenduko ditugu $s = 2$ urratsaren hasieran. $\mathbf{u}^{(2)}_{\text{NN}}$ berriro entrenatuko dugu (geruzaz geruza edo hasieratik amaierarainoko entrenamenduekin) FEMaren soluzioa hurbil dezan (bi elementuko) diskretizazio-sare finean, hau da,

$$\mathbf{u}^{(2)}_{\text{FEM}}(\sigma,\alpha) = \begin{bmatrix} u^{(2)}_{\text{FEM},0}(\sigma,\alpha)\\ u^{(2)}_{\text{FEM},1}(\sigma,\alpha)\\ u^{(2)}_{\text{FEM},2}(\sigma,\alpha)\end{bmatrix} \approx \begin{bmatrix} u^{(2)}_{\text{NN},0}(\sigma,\alpha)\\ u^{(2)}_{\text{NN},1}(\sigma,\alpha)\\ u^{(2)}_{\text{NN},2}(\sigma,\alpha)\end{bmatrix} = \mathbf{u}^{(2)}_{\text{NN}}(\sigma,\alpha). \tag{3.12}$$

Prozesu hori urratsez urrats errepikatuko dugu, NNaren sakontasuna handituz, diskretizazio-sarearen elementu kopurua soluzio analitikoa zehazki hurbiltzeko gai den arte. 3.4. irudian ikus daiteke arkitektura dinamiko hori.

3.3.2. Eskema parametrikoa koefiziente konstantedunetarako

Eskema ez-parametrikoa dimentsio oso txikiko pisuak eta alborapenak ezartzean zetzan (adibidez, $\mathbf{W}^{(1)}, \mathbf{W}^{(1)}_{\sigma,\alpha} \in \mathbb{R}^{2\times 2}$ eta $\mathbf{W}^{(2)} \in \mathbb{R}^{3\times 2}, \mathbf{W}^{(2)}_{\sigma,\alpha} \in \mathbb{R}^{2\times 2}$), koefizienteen lagin bakar batean entrenatu nahi baikenuen.

Problema parametrikoetarako (koefizienteen laginen datu-base batean entrenatzeko), sakonera eta zabalera gehituko dizkiegu arkitektura dinamikoaren atal


$\mathbf{r}_{\mathrm{NN}}^{(s)}, \quad s = 2, 3$
σ
α
0
1
0
1
2
0
1
2
3
4
1
0.5
n_0
n_1
n_2
n_3
n_4
$\mathbf{u}_{\mathrm{NN}}^{(1)}$
$\mathbf{u}_{\mathrm{NN}}^{(2)}$
$\mathbf{u}_{\mathrm{NN}}^{(3)}$

3.4. irudia: Eskema ez-parametrikoaren DeepFEM arkitektura dinamikoaren irudikapena koefiziente konstantedunetarako. Gezi grisek aldagai entrenagarriak adierazten dituzte, eta gezi beltzek, berriz, (entrenaezinak diren) zabaltze-operazioak.

entrenagarriei, honela:

$$\mathbf{u}_{\mathrm{NN}}^{(1)} = \mathcal{FC}_{\mathrm{NN}}^{(1)}(\sigma, \alpha), \tag{3.13a}$$

$$\mathbf{r}_{\mathrm{NN}}^{(s)} = \mathcal{FC}_{\mathrm{NN}}^{(s)}(\sigma, \alpha), \qquad s \geq 2, \tag{3.13b}$$

$$\mathbf{u}_{\mathrm{NN}}^{(s)} = \mathbf{E}_{s-1}^{(s)} \mathbf{u}_{\mathrm{NN}}^{(s-1)} + \mathbf{r}_{\mathrm{NN}}^{(s)}, \qquad s \geq 2. \tag{3.13c}$$

Hemen, $\mathcal{FC}_{\mathrm{NN}}^{(s)}$-k adierazten du aktibatu gabeko azken geruza batekin guztiz konektatutako FFNN bat (gogoratu 2.1. atala), eta horren irteera-dimentsioa zehaztuko da FEM diskretizazioaren dimentsioekin bat etortzeko eran. Sinpletasunagatik, *bloke entrenagarri* deituko diogu $\mathcal{FC}_{\mathrm{NN}}^{(s)}$ ereduei. 3.5. irudiak bloke entrenagarriaren arkitektura erakusten du eta 3.6. irudiak horiek irudikatzen ditu DeepFEM eskema parametrikoaren barruan.

3.3.3. Eskema parametrikoa zatika konstanteak diren koefizienteak dituztenetarako

Azkenik, zatika konstanteak diren koefizienteen portaera erantsiko diegu parametroei. Horretarako, pentsatuko dugu parametroek balio konstanteak dituztela hasierako diskretizazio-sareko elementu bakoitzean. Horrela, arkitekturaren aldaketek soilik sarrerako geruzan dute eragina: σ eta α balio errealen ordez, hasierako



3.5. irudia: *s*. urratsean bloke entrenagarri baten arkitekturaren irudikapena. Gezi grisek aldagai entrenagarriak adierazten dituzte.


σ
α
$\mathcal{FC}_{\text{NN}}^{(1)}$
$\mathcal{FC}_{\text{NN}}^{(2)}$
$\mathcal{FC}_{\text{NN}}^{(3)}$
0
1
0
1
2
0
1
2
3
4
1
0.5
0.5
1
0.5
0.5
1
0.5
1
0.5
1
n_0
n_1
n_2
n_3
n_4
$\mathbf{u}_{\text{NN}}^{(1)}$
$\mathbf{u}_{\text{NN}}^{(2)}$
$\mathbf{u}_{\text{NN}}^{(3)}$

3.6. irudia: Eskema parametrikoaren DeepFEM arkitektura dinamikoaren irudikapena koefiziente konstantedun problemarako. Gezi grisek aldagai entrenagarriak adierazten dituzte, eta gezi beltzek, berriz, (entrenaezinak diren) zabaltze-operazioak.

diskretizazio-sarearen elementu kopuruarekin bat datorren dimentsioko bektoreak erabiliko dira. 3.7. irudiak arkitekturaren grafo dinamiko eta parametrikoa erakusten du, bi elementuko hasierako diskretizazio-sarearentzat.



$\mathcal{FC}_{\mathrm{NN}}^{(3)}$
$\mathcal{FC}_{\mathrm{NN}}^{(2)}$
$\mathcal{FC}_{\mathrm{NN}}^{(1)}$
σ_1
σ_2
α_1
α_2
1
0.5
0.5
1
0.5
0.5
1
n_0
n_1
n_2
n_3
n_4
n_5
n_6
n_7
n_8
$\mathbf{u}_{\mathrm{NN}}^{(1)}$
$\mathbf{u}_{\mathrm{NN}}^{(2)}$
$\mathbf{u}_{\mathrm{NN}}^{(3)}$

3.7. irudia: Eskema parametrikoaren DeepFEM arkitektura dinamikoaren irudikapena zatika konstanteak diren koefizienteak dituztenetarako. Gezi grisek aldagai entrenagarriak adierazten dituzte, eta gezi beltzek, berriz, (entrenaezinak diren) zabaltze-operazioak.

3.4. Galera-funtzioa eta entrenamendua

3.3. atalean urratsez urrats deskribatutako metodologiaren barruan, “(s)” goi-indizea ezabatuko dugu sinpletasunagatik, hautatutako aldagai entrenagarriak, galera-funtzioak eta normak urratsaren mende daudela ulertuta.

NNak FEMa aplikatu ostean sortzen den ekuazio linealetako sistema parametrikoaren soluzioa hurbil dezan, hau da,

$$\mathbf{u}_{\mathrm{NN}} \approx \mathbf{u}_{\mathrm{FEM}}, \tag{3.14}$$

honako galera-funtzioa aukeratuko dugu:

$$\mathcal{L}(\theta, \{\sigma_i, \alpha_i\}_{i=1}^{N}) := \frac{1}{N}\sum_{i=1}^{N} \|\mathbf{A}(\sigma_i, \alpha_i)\mathbf{u}_{\mathrm{NN}}(\sigma_i, \alpha_i; \theta) - \mathbf{f}\|, \tag{3.15}$$

non $\mathbf{u}_{\mathrm{NN}}(\sigma_i, \alpha_i; \theta)$ DeepFEM ereduaren iragarpena baita i. laginerako, $\mathbf{A}(\sigma_i, \alpha_i)$ FEM matrizea —gogoratu (3.6)—, $\mathbf{A}(\sigma_i, \alpha_i)\mathbf{u}_{\mathrm{NN}}(\sigma_i, \alpha_i; \theta) - \mathbf{f}$ hondar bektorea, eta $\|\cdot\|$ ezarritako norma bektorial bat (adibidez, 2-norma).

3.4.1. Gradientean oinarritutako entrenamendua

Galera-funtzioa minimizatzeko, Adam optimizatzailea [119] aplikatuko dugu urrats bakoitzaren hasieran. Exekuzioa gelditukoa dugu iterazio kopurua gehienezko balio batera iristen denean. Gainera, ez atzera ez aurrera gera ez dadin, iterazio bakoitzeko galera zenbait iterazio aurrerago lortutako galerarik txikienarekin konparatuko dugu. Zenbait iterazioren ostean, galeraren hobekuntza hutsala bada, exekuzioa gelditu egingo dugu. Adam optimizatzailea darabilgun bitartean galera areagotu edo gutxitu egin daitekeenez, exekuzioan zehar galera hori ikuskatuko dugu, eta prozesuaren amaieran, aldagaien konfiguraziorik onena itzuliko dugu emaitza gisa. Ondoren, ohiko gradientearen jaitsieran oinarritutako optimizatzaile bat erabiliko dugu, galeraren araberako ikaskuntza-tasa adaptatibo bat duena eta lan honetarako guk diseinatu duguna, *Adalr* izenekoa. Adam-en kasuan erabilitako irizpide berberak erabiliko ditugu Adalr-en exekuzioa gelditzeko ere. Bestalde, Adalr-ek aldagaiak egokitu egingo ditu galeraren areagotzea gerta ez dadin. 1. algoritmoak erakusten du ikaskuntza-tasaren adaptibitatearen portaera eta aldagaiak onartzeko edo baztertzeko irizpidea. Zenbakizko emaitzetan bi optimizatzaileak alderatuko ditugu. Ikuspegi orokor gisa, Adam-ek hasieran galera azkar gutxitzen duen arren, optimoaren azpitik geratzen den atalase bateraino egingo du, eta portaera oszilakorra erakutsiko du. Beste aldetik, Adalr-ek galera monotonikoki gutxituko du, Adam-ena baino konbergentzia abiadura txikiagoarekin.

3.4.2. Normaren hautaketa eta aurrebaldintzaketa

Norma diskretu bat aukeratu nahi dugu galera-funtzioan —gogoratu (3.15)— errorearen *energia-normaren* antzeko portaera duena. Simetrikoa eta positibo-definitua den problema batean, energia-norma honako era honetan emana dator:

$$\|\mathbf{v}\|_{\mathbf{A}} := \sqrt{\mathbf{v}^T\mathbf{A}\mathbf{v}}, \tag{3.16}$$

non $\mathbf{v}^T$ bektorea $\mathbf{v}$ zutabe bektorearen iraulia baita eta $\mathbf{A}$ ekuazio linealen sistemaren matrizea, simetrikoa eta positibo-definitua den matrizea. Errore bektorea horrela idazten badugu (σ, α) lagin bakoitzerako:

$$\mathbf{e}(\sigma,\alpha) := \mathbf{u}_{\text{NN}}(\sigma,\alpha) - \mathbf{A}^{-1}(\sigma,\alpha)\mathbf{f} = \mathbf{u}_{\text{NN}}(\sigma,\alpha) - \mathbf{u}_{\text{FEM}}(\sigma,\alpha), \tag{3.17}$$

hondarrari dagokion honako erlazio honetara iritsiko gara:

$$\|\mathbf{e}(\sigma,\alpha)\|_{\mathbf{A}(\sigma,\alpha)} = \|\mathbf{A}(\sigma,\alpha)\mathbf{u}_{\text{NN}}(\sigma,\alpha) - \mathbf{f}\|_{\mathbf{A}^{-1}(\sigma,\alpha)}. \tag{3.18}$$

Praktikan, $\mathbf{A}(\sigma,\alpha)$-ren alderantzizkoa konputaezina da, eta, beraz, errorea ezezaguna da. Horregatik, ekuazio linealen sistema bat ebazteko metodo iteratiboetan gertatzen den bezala, alderantzizko operadorea antzeratzeko aurrebaldintzatzaile bat aukeratuko dugu, era horretan sistemaren baldintza-zenbakia gutxituz [169]. Orduan, honako norma bektoriala $\|\cdot\|$ definitzen dugu (3.15)-en:

$$\|\mathbf{v}\| := \|\mathbf{v}\|_{\mathbf{P}} = \sqrt{\mathbf{v}^T\mathbf{P}\mathbf{v}}, \tag{3.19}$$

1. algoritmoa: Adalr optimizatzailea

```
/* Goi-indizeek iterazioak adierazten dituzte                     */
Input: $\theta^{(0)}, \eta^{(0)}, D$ ;        // Hasierako aldagaiak eta datu basea
Output: $\theta^*$, $\mathcal{L}^*$ ;              // Amaierako aldagaiak eta galera
$\mathcal{L}^{(0)} = \mathcal{L}(\theta^{(0)}; D)$; $\theta^{(1)} = \theta^{(0)} - \lambda^{(0)} \frac{\partial \mathcal{L}}{\partial \theta}(\theta^{(0)}; D)$;
$\theta^* = \theta^{(0)}$; $\mathcal{L}^* = \mathcal{L}^{(0)}$; $t = 1$;
while ez gelditu do
    $\mathcal{L}^{(t)} = \mathcal{L}(\theta^{(t)}; D)$; $\theta^{(t+1)} = \theta^{(t)} - \lambda^{(t)} \frac{\partial \mathcal{L}}{\partial \theta}(\theta^{(t)}; D)$ ;
    /* Galeraren balio berria okerragoa bada                      */
    if $\mathcal{L}^{(t)} > \mathcal{L}^*$ then
        $\lambda^{(t+1)} =$ Gutxitu($\lambda^{(t)}$); $\theta^{(t+1)} = \theta^*$;
    else
        $\theta^* = \theta^{(t)}$;
        /* Konbergentzia geldoa bada                               */
        if konbergentzia geldoa and aldagaien bazterketarik eza then
            $\lambda^{(t+1)} =$ Handitu($\lambda^{(t)}$);
        else
            $\lambda^{(t+1)} = \lambda^{(t)}$;
        $\mathcal{L}^* = \mathcal{L}^{(t)}$;
    $t = t + 1$;
return $\theta^*$, $\mathcal{L}^*$
```

non $\mathbf{P} = \mathbf{P}(\sigma, \alpha)$ aurrebaldintzatzaile bat baita $\mathbf{A}(\sigma, \alpha)$ matrizearentzako. Tamaina ezberdineko blokekako Jacobi aurrebaldintzatzaileak aukeratuko ditugu, non elementu bat gainjarrita baitute [169]. Ohartu, $\mathbf{P} = \mathbf{I}$ identitatea denean, 2-norma daukagula ($\|\cdot\|_{\mathbf{I}} = \|\cdot\|_2$).

Problema zehaztugabea bada, positiboki definitutako operadore bat aukeratuko dugu, $\mathbf{B}$ matrizea dagokiona. Norma berrian honako hau da errorearen eta hondarraren arteko erlazioa:

$$\|\mathbf{e}(\sigma, \alpha)\|_{\mathbf{B}} = \|\mathbf{A}^{-1}(\sigma, \alpha)\left\{\mathbf{A}(\sigma, \alpha)\mathbf{u}_{\text{NN}}(\sigma, \alpha) - \mathbf{f}\right\}\|_{\mathbf{B}}. \tag{3.20}$$

Aurreko arrazoiketa bera jarraituz, (3.15)-i dagokion norma honako era honetan definituko dugu:

$$\|\mathbf{v}\| := \|\mathbf{P}\mathbf{v}\|_{\mathbf{B}} = \sqrt{\mathbf{v}^T\mathbf{P}^T\mathbf{B}\mathbf{P}\mathbf{v}} = \|\mathbf{v}\|_{\mathbf{P}^T\mathbf{B}\mathbf{P}}. \tag{3.21}$$

Berriz ere, $\mathbf{P} = \mathbf{B} = \mathbf{I}$ identitate operadoreak direnean, aurreko ekuazioa bat letorke 2-norma diskretuarekin.

Zenbakizko emaitzetan, problema positiboetarako energia-norma erabiltzeaz gain, ohikoa da L^2 eta H^1 normak erabiltzea, bai ikuskatzeko baita (aurrebaldintzatutako) hondarra eta errorea neurtzeko ere. Norma jarraitu horiek badituzte definizio diskretu baliokideak:

$$\|u\|_{L^2} = \sqrt{\mathbf{u}^T\mathbf{M}\mathbf{u}} = \|\mathbf{u}\|_{\mathbf{M}}, \tag{3.22}$$

$$\|u\|_{H^1} = \sqrt{\mathbf{u}^T\mathbf{M}\mathbf{u} + \mathbf{u}^T\mathbf{K}\mathbf{u}} = \|\mathbf{u}\|_{\mathbf{K}+\mathbf{M}}, \tag{3.23}$$

non $\mathbf{u} = [u_j]_{j=0}^J$ ebaluaketen bektorea baita diskretizazio-sareko nodoetan; ψ_j, j. nodoari lotutako oinarriko funtzioa baita; eta $\mathbf{M}$ eta $\mathbf{K}$ masa- eta zurruntasun-matrizeak, (r, s). matrizeen sarreretan $(\psi_s, \psi_r)_\Omega$-ren eta $(\psi_s', \psi_r')_\Omega$-ren bidez definutakoak, hurrenez hurren. Hala komeni delako, (3.22) eta (3.23) norma diskretuak haien bertsio jarraituetatik jasotako izenak erabilita izendatuko ditugu, hau da, L^2 eta H^1 normak, hurrenez hurren.

Era berean, letra lodia kenduko dugu dagozkien funtzio bektorialen funtzio eskalarrak aipatzeko. Zehazki, NN iragarpenetarako eta FEM soluzioetarako,

$$u_{\text{NN}}(x; \sigma, \alpha) = \sum_{j=0}^{J} u_{\text{NN},j}(\sigma, \alpha)\ \psi_j(x), \tag{3.24a}$$

$$u_{\text{FEM}}(x; \sigma, \alpha) = \sum_{j=0}^{J} u_{\text{FEM},j}(\sigma, \alpha)\ \psi_j(x), \tag{3.24b}$$

non $u_{\text{NN},j}(\sigma, \alpha)$ eta $u_{\text{FEM},j}(\sigma, \alpha)$ DeepFEM iragarpen and FEM soluzio bektoreen, $\mathbf{u}_{\text{NN}}(\sigma, \alpha)$ eta $\mathbf{u}_{\text{FEM}}(\sigma, \alpha)$, j. osagaiak baitira, hurrenez hurren.

3.5. Inplementazioa

Python programazio-lengoaian inplementatu dugu kodea, eta TensorFlow 2 (TF2) [3, 2], NumPy [91], eta SciPy [224] liburutegiak erabili ditugu NNko ereduak eraikitzeko eta parametroak eta FEMaren datuak sortzeko. Geruzak eraikiko ditugu Keras-en; zehazki, TF2-aren barruan[7] dauden oinarriko klaseak berdefinituz (`tf.keras`). TF2-aren barruko liburutegi zehatz bat erabili dugu (`tf.sparse`) zabaltze-operadoreak eta FEM matrizeak kudeatzeko, memoria murriztuz eta errendimendu handiagoa lortuz. Zehaztasun bikoitza (float64) erabiliko dugu, zehaztasun sinplearen ordez (float32). Galera kalkulatuko dugu entrenagarria ez den geruza batean, $\mathbf{u}_{\mathrm{NN}}$ eredu nagusia aplikatu osteko urrats bakoitzean. Beherago azalduko ditugu inplementazioaren arloan aurkitu ditugun hiru zailtasun nagusiak.

3.5.1. Sakabanatutako tentsoreen multzokaketaren birmoldaketa

Keras ereduetako tentsoreak laginaren multzokaketaren lehen dimentsioa (ardatza ere esaten zaio) mantentzeko eran diseinatuta daude. Ondorioz, galeran egiten diren matrizeen eta bektoreen arteko biderketak 3Dko tentsore baten (sakabanatutako matrizeen multzokaketa) eta 2Dko tentsore baten (bektoreen multzokaketa) arteko eragiketa bihurtzen dira Keras ereduan. Bi tentsoreak trinkoak izango balira, aipatutako eragiketa Einstein batuketaren bidez definituko genuke. Hala ere, oraindik ez dago TF2-an funtzio baliokiderik sakabanatutako tentsoreak kudeatzeko[8]. Hori konpontzeko 3Dko tentsore sakabanatua berdimentsionatuko dugu blokeka gainjartzen ez diren 2Dko matrize batean jarriz. Era berean, 2Dko tentsorea 1Dko bektore luze batean jarriko dugu. Horren ondorioz, multzokaketari lotutako jarioa galdu egingo da, eta Keras-en lehenetsita dagoen entrenamendurako funtzioa ez erabiltzea eragingo du horrek. Horrela, ADaren bidezko maila baxuko optimizazioa egingo dugu *exekuzio sutsuan* (ingelesetik, *eager execution*), *grafo exekuzioan* (ingelesetik, *graph execution*) baino askoz motelagoa dena[9].

[7]TF1.X-en garaian, Keras kanpo-liburutegi bat zen TF-rako Pythonen erabilera errazteko. 2019ko irailean, TF2 irten zenetik, Keras TF2-ren azpiliburutegi bihurtu zen TF2.12 bertsioa 2023ko martxoan irten zenera arte, non Keras (berriro ere) TF-ren gainean eraikitako, eta JAX eta PyTorch sostengatzen dituen kanpoko esparru bihurtu baitzen. Ikus `https://keras.io` xehetasun gehiagorako (azken sarrera: 2023ko irailaren 4an).

[8]Horri buruzko intzidentzia bat ireki genuen 2020ko irailean Github-en (`https://github.com/tensorflow/tensorflow/issues/43497`); hala ere, oraindik ez dugu erantzun sendorik jaso (azken sarrera: 2023ko irailaren 4an).

[9]Ikus `https://www.tensorflow.org/guide/intro_to_graphs` informazio gehiagorako (azken sarrera: 2023ko irailaren 4an).

3.5.2. FEMeko datuen sorkuntza

SciPy liburutegia erabiliko dugu FEM ingurunean erabiltzen ditugun zabaltze-matrizeak, eta ekuazio linealen sistemaren matrizeak eta aurrebaldintzatzaileak eraikitzeko. Sakabanatuak diren sistema linealak ebazteko ere liburutegi bera erabiliko dugu. Geometria konplexuagoetarako, eraginkorragoak diren software-plataformak ere badaude, matrizeen, aurrebaldintzatzaileen eta zabaltze-operadoreen mihiztapena edo eraikuntza egiteko gai direnak (adibidez, FEniCS [8]). Horiek elementu finituen sistema konplexuagoetarako erabiltzea gomendatzen dugu (adibidez, 2D eta 3D problemetarako). Nolanahi ere, eragiketa horiek NNaren entrenamendua baino lehen egiten dira, eta, beraz, ez dute eraginik ereduaren optimizazio-denboran.

3.5.3. Aurrebaldintzatzaileen mihiztadura eta ekintzak

Idealki, aurrebaldintzatzaileak sistemako matrizeen blokekako LU deskonposaketa gisa kudeatu beharko genituzke, eta haien ekintzak galeren ebaluazio bakoitzean kalkulatu beharko genituzke, alderantzizko ordezkapen algoritmo bat erabiliz [5, 158]. Berriro, TF2-ak ez dauka ekintza horiek ebaluatzeko gai den tresna baliokiderik. Hori dela eta, mihiztatutako aurrebaldintzatzaileak erabiliko ditugu.

3.6. Zenbakizko esperimentuak

DeepFEMaren errendimendua aztertzeko, esperimentu batzuk gauzatuko ditugu. 3.6.1., 3.6.2. eta 3.6.3. ataletan esperimentu ez-parametrikoak aztertuko ditugu, eta 3.6.4. atalean, berriz, bi problema parametriko aztertuko ditugu. Esperimentu guztiak $(0, 1)$ espazioko eremuan egingo dira, Dirichlet eta Neumann muga-baldintzekin, 0n eta 1en, hurrenez hurren.

3.6.1. Adibide erraz bat

Izan bedi

$$\begin{cases} -u'' = -20x^3, \\ u(0) = 0, u'(1) = 5, \end{cases} \tag{3.25}$$

non bere soluzio analitikoa $u^*(x) = x^5$ baita. Hasieran, problema hau elementu bateko diskretizazio-sare bat erabiliz ebatziko dugu DeepFEMarekin. Gero, diskretizazio-sarea hamar aldiz finduko dugu (hamaika urrats, hau da, $1 \leq s \leq 11$), 1.024 elementudun diskretizazio-sare gainfindura iritsi arte. Lehen esperimentu honetan, proposatutako metodoa aztertuko dugu hainbat fintze eginez. Bloke entrenagarri bakoitzak neurona eta geruza bakarra ditu (gogoratu 3.2. atala). ReLU aktibazio funtzioak erabiliko ditugu bloke entrenagarri bakoitzean.

3.8. irudiak NNaren lehenengo lau urratsetako iragarpenak erakusten ditu. Urrats horietako bakoitzean, ereduak iragarpen zakarra diskretizazio-sare fineraino hedatzen du. Orduan, eredua entrenatzen da diskretizazio-sare finean hurbilketa zehatz bat lortzen den arte. Emaitzek zehaztasun handia erakusten dute lehen lau urratsetan.

3.9a. irudiak galera-funtzioak lehenengo lau urratsetan duen eboluzioa erakusten du, galera-funtzio hori energia-normarekin bat datorrenean. 3.9b. irudiak galera-funtzioaren eboluzio osoa erakusten du (hamaika urratsetan zehar). Adibide horrek ikaskuntza sakonak baldintza optimaletan dituen konbergentzia-portaerak eta mugak agerian uzten ditu; adibidez, matrizearen alderantzizkoa galera-funtzioaren parte denean. Galera-funtzioan ikusten diren jauzi bertikalek iragarpenaren diskretizazio-sare zakarretik finerako hedapena adierazten dute (urrats batetik hurrengorakoa). Jauzi bakoitzaren ondoren, galera-funtzioaren konbergentzia zaratatsua ikusten da. Fase hau, Adam optimizatzailearen erabilerarekin lotuta dago. Hasieran, galera-funtzioa asko gutxitzea eragiten du; baina laster gelditzen da joera hori. Orduan, Adalr optimizatzailea erabiltzen dugu, galera-funtzioaren beherakada monotonoa erakutsiz. Fase bakoitzean, hasierako ikaskuntza-tasa da aurreko faseko galeraren lehenengo ebaluazioa bider 10^{-3} edo 10^{-2}, Adam edo Adalr erabiltzen ari garen arabera, hurrenez hurren. Gehie-



(a) $s = 1$ urratsa (entrenatu aurretik). **(b)** $s = 1$ urratsa (entrenatu ondoren).



(c) $s = 2$ urratsa (entrenatu aurretik). **(d)** $s = 2$ urratsa (entrenatu ondoren).



(e) $s = 3$ urratsa (entrenatu aurretik). **(f)** $s = 3$ urratsa (entrenatu ondoren).



(g) $s = 4$ urratsa (entrenatu aurretik). **(h)** $s = 4$ urratsa (entrenatu ondoren).

3.8. irudia: (3.25). problemaren lehenengo lau urratsetako DeepFEMeko iragarpenak. u^* soluzio zehatza da, u_{FEM} elementu finituetako soluzioa, eta u_{NN} DeepFEMaren iragarpena.

nez, 2.000 eta 4.000 iterazio ezarri ditugu Adam-entzako eta Adalr-entzako fase bakoitzeko exekuzioetan, hurrenez hurren. Hasieratik amaierarainoko entrenamenduak egiten ditugu NNan. Konbergentzia-desbideraketa nabaritzen dugu urrats-kopurua (eta diskretizazio-sarearen tamaina) handitzean. Nolanahi ere, azken errorea 10^{-8} baino txikiagoa da urrats guztietan zehar (ikus 3.9c. irudia).

3.6.1.1. Hasieratik amaierarainoko entrenamendua vs. geruzaz geruzakoa

Eraikuntzarengatik, DeepFEMaren geruza bakoitzak diskretizazio-sarearen elementu bakoitzarekin elkartutako oinarriko funtzioekin lotutako koefizienteak iragartzen ditu. Diskretizazio-sareak zenbat eta finagoak izan, orduan eta lokalagoak dira oinarriko funtzioei lotutako euskarriak. Alde batetik, hasieratik amaierarainoko entrenamenduak koefizienteen hierarkia osoaren entrenagarritasuna ahalbidetzen du. Beste alde batetik, geruzaz geruzako entrenamenduak, bakarrik azken diskretizazio-sarearekin (finena dena) lotuta dauden koefizienteen entrenagarritasuna hornitzen du. 3.10a. irudiak galera-funtzioaren konbergentzia erakusten du, goiko baldintza berberetan, baina geruzaz geruzako entrenamendua egiten denean. Ikusten den moduan, konbergentzia desorekatu egiten da iterazio kopurua handitzen den heinean, hasieratik amaierarainoko entrenamenduarekin konparatuta (gogoratu 3.9b. irudia). Hori gertatzen da galera-funtzioak errorearen gradientea dakarrelako energia-norma erabiltzen denean. 3.10b. irudiak errore-funtzioa irudikatzen du, ia konstantea dena. Horrela, errorearen deribatua ia zero da. Orduan, erronka izaten da errorearen energia-norma minimizatzea, lokalak diren euskarri funtzioei lotutako koefizienteak doituz. Horrek, askotan, errorearen deribatua handitzea dakar. Konbergentzia azkartu egiten da euskarri globaleko eta lokaleko oinarriko funtzioak erabiltzen direnean, multidiskretizazio-sareetan oinarritutako metodoekin bezala (ingelesetik, *multigrid methods*) [37].

Gradienteei jaramonik egiten ez dien norma bat aukeratzen badugu, adibidez, L^2-norma, euskarri lokaleko oinarriko funtzioei lotutako entrenamenduak emaitza bikainak ematen ditu (geruzaz geruzako entrenamendua egitean), 3.11a. irudian ikusten den moduan. Hala ere, ekuazio diferentzialak ebazten direnean ez da gomendagarria L^2-norma erabilita optimizatzea.

Nahiz eta hasieratik amaierarainoko entrenamendua aukerarik onena izan hondarren/erroreen gradientea darabilten galera-funtzioetan, galera-funtzioaren desbideraketa ikusten dugu iterazioek aurrera egin ahala (gogoratu 3.9b. irudia). Pentsatzen dugu hori normaren aukeraketarekiko independentea dela, baina aldagai entrenagarri askoren koexistentzia kontrajarriaren ondorioa dela. Gertaera hori argitzeko, L^2-normaren goiko kasua aztertuko dugu, non geruzaz geruzako entrenamendua nahikoa baitzen konbergentzia bikaina lortzeko, eta hasieratik amaieraraionoko entrenamendua egingo dugu. 3.11b. irudiak galera-funtzioaren konbergentzia desbideraketa erakusten du.



(a) Galera-funtzioaren eboluzioa lehenengo lau urratsetan.



(b) Galera-funtzioaren eboluzioa hamaika urratsetan.



(c) Errore-funtzioa entrenamenduaren amaieran.

3.9. irudia: Hasieratik amaierarainoko entrenamendua DeepFEMarentzako (3.25). probleman. Galera-funtzioa errorearen energia-norma da.



(a) Galera-funtzioaren eboluzioa hamaika urratsetan.



(b) Errore-funtzioa entrenamenduaren amaieran.

3.10. irudia: Geruzaz geruzako entrenamendua DeepFEMean galera-funtzioan energia-norma erabiltzen denean (3.25). probleman.

Jarraian, bakarrik hasieratik amaierarainoko entrenamenduak egingo ditugu.

3.6.1.2. Aurrebaldintzatzaileen ekintzak

Orain, (3.19). ekuazioak adierazten duen galera-funtzioa aztertuko dugu hiru aurrebaldintzatzailerekin: (a) **P** identitate-matrizea izanik (3.12a. irudia); (b) **P** blokekako Jacobi aurrebaldintzatzailea, bi tamainako blokeekin (3.12b. irudia); eta (c) **P** blokekako Jacobi aurrebaldintzatzailea egokitutako tamainako blokeekin, haien tamaina diskretizazio-sarearen elementu kopuruaren erdia izanik (3.12c. irudia). Kasu guztietan, galera-funtzioaren eboluzioa eta errorearen energia-normarena erakusten ditugu.

Zenbait ezberdintasun ikusten ditugu errorearen energia-normaren eta galera-funtzioaren artean; espero bezala, galera-funtzioa handitu egiten da diskretizazio-sarea handitzen denean. Jacobiren blokea zenbat eta handiagoa izan, galera-funtzioaren eta errorearen normaren arteko ezberdintasuna txikiagoa da. Gaine-



(a) Galera-funtzioaren eboluzioa geruzaz geruzako entrenamenduak egiten direnean.



(b) Galera-funtzioaren eboluzioa hasieratik amaierarainoko entrenamenduak egiten direnean.

3.11. irudia: DeepFEMaren entrenamenduak (3.25). problemarentzat galera-funtzioan L^2-norma erabiltzean.

ra, galera-funtzioa errorearen energia-normatik zenbat eta urrunago egon, galera-funtzioak arinago lortzen du konbergentzia (konparatu 3.12d eta 3.12e. irudietako erroreak). Horrek pentsarazten digu energia-normako erroreak induzitutako galera-funtzioa sinplifikatutako beste aldaera batzuk baino ganbilagoa dela aldagaiekiko, besteak beste hondar bektorearen 2-normak induzitutako galera-funtzioa baino ganbilagoa.



(a) Aurrebaldintzatzaile barik, hau da, $\mathbf{P} = \mathbf{I}$.



(b) Bi tamainako blokeak erabilita.



(c) Diskretizazio-sarearen elementu kopuruaren erdiko tamainako blokeak erabilita.



(d) (a). kasuaren errore-funtzioa.



(e) (c). kasuaren errore-funtzioa.

3.12. irudia: Hasieratik amaierarainoko DeepFEMaren entrenamenduak (3.25). problemarentzat tamaina ezberdineko blokedun Jacobi aurrebaldintzatzaileak erabilita.

3.6.1.3. Normaren trukaketa entrenamenduan zehar

Aukeratzen dugun normaren arabera, galera-funtzioaren ganbiltasun mota ezberdinak agertuko dira DeepFEMaren aldagaiekiko. Sarri gertatzen da aldagaien domeinuaren zenbait zatitan galera-funtzio bat beste batzuk baino ganbilagoa izatea, eta horrek zuzeneko eragina du konbergentziaren optimizatzailean. Gelditzea saihesteko, eta ganbiltasuna hobetzeko, optimizazioan zehar norma aldatzea proposatzen dugu. Horretarako, esaterako, honako era honetan definituko dugu norma:

$$\mathcal{L}(\sigma, \alpha; \theta) = C_E \|\mathbf{A}\mathbf{u}_{\mathrm{NN}} - \mathbf{f}\|_{\mathbf{P}} + \ C_{L^2} \|\mathbf{P}(\mathbf{A}\mathbf{u}_{\mathrm{NN}} - \mathbf{f})\|_{\mathbf{M}}, \tag{3.26}$$

non $C_E, C_{L^2} \in \{0, 1\}$ balio ezberdinak baitira, eta elkarrekin trukatuko dira konbergentzia gelditzea gertatzen baldin bada.

Goian aipaturiko ideia argitzeko, 11b. irudiaren kasua aztertuko dugu. Galera-funtzio berbera mantenduko dugu lehenengo lau urratsetan. Gero, bosgarren urratsaren galera-funtzioa ezartzeko bi aldaera hartu ditugu kontuan: (a) aurreko urratseko galera-funtzio berbera ($C_E = 1$ ezarriz (3.26). ekuazioan) baina 12.000 iteraziorekin; eta (b) (3.26). ekuazioan $C_E = 1$ ezarriz 2.000 iteraziotan, gero $C_{L^2} = 1$ ezarri dugu beste 8.000 iteraziotan, eta azkenean $C_E = 1$ ezarpenera bueltatu gara azkenengo 2.000 iterazioetan. Nahiz eta aldaera bietako iterazio kopuru osoa berdina izan, galera-funtzioaren balore txikiagoa lortzen dugu bosgarren urratsa amaitu ondoren norma aldatzen dugunean (10^{-10} inguru) aldaketarik egiten ez denean baino (10^{-8} inguru) —ikus 3.13. irudian—. Galera-funtzioaren eboluzioaren malda altuagoa da L^2-norma darabilgunean, eta horrek galera baxuagoko balio batetik abiatzea ahalbidetzen du energia-normara itzultzean, entrenamendu osoan zehar berbera mantentzen denean baino.



3.13. irudia: Energia-normaren entrenamendu luzea vs. energia- eta L^2-normaren arteko trukea 3.12b. irudiaren bosgarren ($s = 5$) urratsaren erdian.

3.6.2. Soluzio sinusoidalak Poisson and Helmholtz ekuazioetan

Izan bitez

$$\begin{cases} -u'' = 100\pi^2 \sin(10\pi x), \\ u(0) = 0, u'(1) = 10\pi, \end{cases} \qquad \begin{cases} -u'' - 100\pi^2 u = 0, \\ u(0) = 0, u'(1) = 10\pi. \end{cases} \tag{3.27}$$

Hemen, soluzio zehatz berdina duten bi problema ezberdin ditugu (lehenengoa simetrikoa eta positibo-definitua da, eta bigarrena, berriz, indefinitua):

$$u^*(x) = \sin(10\pi x). \tag{3.28}$$

Biak ebatziko ditugu DeepFEM erabilita, eta galera-funtzioa aurrebaldintzatutako hondarraren H^1-norma bezala hautatuko dugu, hau da,

$$\mathcal{L}(\theta; \sigma, \alpha) = \|\mathbf{P}(\mathbf{A}\mathbf{u}_{\text{NN}} - \mathbf{f})\|_{\mathbf{K}+\mathbf{M}}. \tag{3.29}$$

32 elementuko diskretizazio-sare batekin hasiko gara eta hiru fintze egingo ditugu. $\mathbf{P}$ aurrebaldintzatzailea hautatuko dugu 32 elementurekin eta $1 \leq s \leq 4$ urratsetan. Optimizatzaileak eta NNaren arkitekturak 3.6.1. atalekoak dira.

3.14. eta 3.15. irudiek Poisson eta Helmholtz problemekin lotutako DeepFEM iragarpenak erakusten dituzte, hurrenez hurren. Poissonen, FEMaren soluzioek u^*-rekin bat egiten dute nodoetan, baina hori ez da gertatzen Helmholtz ekuazioaren kasuan.

Aurrebaldintzatzaile gisa alderantzizko matrizea hartuz entrenatzen denean, DeepFEMak beherapen monotonikoa erakutsiz konbergitzen du. Hala ere, alderantzizkoa ez den aurrebanditzatzaile bat hartzen denean, konbergentzia gelditu egiten da pare bat magnitude-orden murriztu ondoren (ikus 3.16a. eta 3.16b. irudiak). Adalr optimizatzailearen entrenamendu-faseetan, galera-funtzioa batbatean murrizten da lehen iterazioetan, baina gero lautu egiten da, H^1-normari dagokion errore murrizketa hutsala eginez. Bi esperimentuetan, 10^{-3} inguruko erroreak lortzen ditugu (ikus 3.16c. eta 3.16d. irudiak). Emaitza horiek erakusten dute nolabaiteko zehaztasun-maila (baina ez handia) duten soluzio hurbilduak lor daitezkeela, ziur asko galerak dituen ganbiltasun ezagatik (gogoratu 2.3. atala).



(a) $s = 1$ urratsa (entrenatu aurretik). **(b)** $s = 1$ urratsa (entrenatu ondoren).



(c) $s = 2$ urratsa (entrenatu aurretik). **(d)** $s = 2$ urratsa (entrenatu ondoren).



(e) $s = 3$ urratsa (entrenatu aurretik). **(f)** $s = 3$ urratsa (entrenatu ondoren).



(g) $s = 4$ urratsa (entrenatu aurretik). **(h)** $s = 4$ urratsa (entrenatu ondoren).

3.14. irudia: Poisson (3.27). probleman lortutako iragarpenak lau urratsetan zehar. u^* soluzio zehatza da, u_{FEM} elementu finituetako soluzioa, eta u_{NN} DeepFEMaren iragarpena.



(a) $s = 1$ urratsa (entrenatu aurretik).



(b) $s = 1$ urratsa (entrenatu ondoren).



(c) $s = 2$ urratsa (entrenatu aurretik).



(d) $s = 2$ urratsa (entrenatu ondoren).



(e) $s = 3$ urratsa (entrenatu aurretik).



(f) $s = 3$ urratsa (entrenatu ondoren).



(g) $s = 4$ urratsa (entrenatu aurretik).



(h) $s = 4$ urratsa (entrenatu ondoren).

3.15. irudia: Helmholtz (3.27). probleman lortutako iragarpenak lau urratsetan zehar. u^* soluzio zehatza da, u_{FEM} elementu finituetako soluzioa, eta u_{NN} DeepFEMaren iragarpena.



(a) Poisson (3.27). probleman galeraren eta errorearen H^1-normaren eboluzioak.



(b) Helmholtz (3.27). probleman galeraren eta errorearen H^1-normaren eboluzioak.



(c) Errore-funtzioa entrenamenduaren amaieran (Poisson).



(d) Errore-funtzioa entrenamenduaren amaieran (Helmholtz).

3.16. irudia: Hasieratik amaierarainoko entrenamenduak DeepFEMean hiru urratsetan zehar (3.27). probleman, 32 tamainako Jacobi blokedun aurrebaldintzatzaileak erabilita.

3.6.3. Soluzio sinusoidala zatika konstanteak diren koefizienteak erabiliz

Helmholtzen ekuazioari jarraiki, maiztasun aldakorrak gehitzen ditugu hedapen-domeinuan, zatika konstanteak diren koefizienteak kontuan hartuta, honela:

$$\begin{cases} -(\sigma u')' + \alpha u = 0, \\ u(0) = 0, u'(1) = 10\pi, \end{cases} \tag{3.30}$$

non

$$\sigma = \begin{cases} 1, & 0 < x < 1/3 \text{ bada}, \\ 2, & 1/3 < x < 2/3 \text{ bada}, \\ 3, & 2/3 < x < 1 \text{ bada}, \end{cases} \quad \alpha = \begin{cases} -3000, & 0 < x < 1/3 \text{ bada}, \\ -2000, & 1/3 < x < 2/3 \text{ bada}, \\ -1000, & 2/3 < x < 1 \text{ bada}. \end{cases} \tag{3.31}$$

Galera-funtziorako H^1-norma erabiltzen dugu. 48 elementu dituen diskretizazio-sarearekin hasiko gara, eta hiru fintze uniforme egingo ditugu. 48 tamainako blokedun **P** aurrebaldintzatzailea hautatuko dugu diskretizazio-sarearen lehen bi fintzeetan, eta 96 tamainako blokeak dituena azken bietan. Optimizatzaileak eta NNaren arkitekturak 3.6.1. atalekoak dira berriro.

3.17. irudiak DeepFEMaren iragarpenak erakusten ditu eta 3.18a. irudiak galera-funtzioaren eboluzioa erakusten du entrenamenduan zehar. Alderantzizkoa erabiltzen denean aurrebaldintzatzaile gisa, entrenamendua ondo doa, baina hurrengo urratsetan galeraren geldialdia ikusten da, lehen gertatzen zen bezala. Gainera, galeraren eragin beherakorra dago errorearen H^1-norman, azken entrenamendu-urratsean konstante mantentzen dena galera bi magnitude-ordenatan jaisten den bitartean. 3.18b. eta 3.18c. irudiek hirugarren eta laugarren urratsen amaierako errore-funtzioak erakusten dituzte, hurrenez hurren.



(a) $s = 1$ urratsa (entrenatu aurretik).

(b) $s = 1$ urratsa (entrenatu ondoren).

(c) $s = 2$ urratsa (entrenatu aurretik).

(d) $s = 2$ urratsa (entrenatu ondoren).

(e) $s = 3$ urratsa (entrenatu aurretik).

(f) $s = 3$ urratsa (entrenatu ondoren).

(g) $s = 4$ urratsa (entrenatu aurretik).

(h) $s = 1$ urratsa (entrenatu ondoren).

3.17. irudia: (3.30). probleman lortutako iragarpenak lau urratsetan zehar. u^* soluzio zehatza da, u_{FEM} elementu finituetako soluzioa, eta u_{NN} DeepFEMaren iragarpena.



(a) Galeraren eta errorearen H^1-normaren eboluzioak Helmholtz (3.30). probleman.



(b) Errore-funtzioa $s = 3$ urratsaren amaieran.



(c) Errore-funtzioa $s = 4$ urratsaren amaieran.

3.18. irudia: Hasieratik amaierarainoko entrenamenduak DeepFEMean lau urratsetan zehar (3.30). probleman. 48, 48, 96 eta 96 tamainako Jacobi blokedun aurrebaldintzatzaileak erabili dira 1., 2., 3. eta 4. urratsetan, hurrenez hurren.

3.6.4. Mutur-balioen problema parametrikoak

Atal honetan, DeepFEMa bere aldaera parametrikora hedatuko dugu: NNa entrenatu dugu FEMaren soluzioak diskretizazio-sare batetik bestera ikas ditzan, muga-baldintza finkoak dituen PDE koefiziente familia baterako. Esperimentutzat hartuko ditugu α koefizienteak bakarrik portaera parametriko konstanteak dituen kasuak.

Izan bedi

$$\begin{cases} -u'' + \alpha u = 0, \\ u(0) = 0, u'(1) = 2\pi. \end{cases} \tag{3.32}$$

Problema hau ebazteko, diskretizazio-sarea hiru aldiz finduko dugu. Ausazko datu-baseak aukeratuko ditugu α koefizientearentzat. Entrenamendua datu-base osoan egingo da NNan, multzokaketako zatiketa egin barik. Aukeratutako galera-funtzioak norma aplikatzen dio aurrebaldintzatzailedun hondar bakoitzari, zeina datu lagin bakoitzaren mendekoa baita. Zehazki, lagineko galera-funtzioen batezbesteko batuketa batekiko optimizatuko dugu —gogoratu (3.15). ekuazioa—.

3.6.4.1. Erreakzio-difusio ekuazio parametrikoa: $0 < \alpha < 200$

Kasu honetako soluzio analitikoa honako hau da: $u^*(x) = C(e^{\sqrt{\alpha}x} - e^{-\sqrt{\alpha}x})$, $C = \frac{2\pi e^{\sqrt{\alpha}}}{\sqrt{\alpha}(e^{2\sqrt{\alpha}}+1)}$ izanik, eta $u^*(x) \to 2\pi x$ betetzen da $\alpha \to 0$ denean. Geruza bakarreko sakontasuna eta 20 neuronen zabalera ezarriko dugu NNaren bloke entrenagarri bakoitzean. Zortzi elementuko diskretizazio-sare batekin hasiko gara DeepFEMarekin, eta 64 elementuko diskretizazio-sare batekin amaituko dugu. Urrats bakoitzean, aurrebaldintzatzaileak erabiliko ditugu zortzi tamainako blokeekin. Problema parametrikoa simetriko eta positibo-definitua denez, aurrebaldintzatzaileak sortzen duen norma erabiliko dugu optimizazio prozesuan.

Ehun lagineko datu-base bat aukeratuko dugu NNa entrenatzeko. Entrenamenduaren ondoren, NNaren errendimendua aztertzeko, honako proba datuak (ingelesetik, *test data*) hautatuko ditugu: $\{0, 3, 15, 50, 200\}$. Probarako datuek ez dute entrenamenduan parterik hartuko. 3.19. irudiak NNaren iragarpen parametrikoak irudikatzen ditu proba datuetan ebaluatuta, eta diskretizazio-sare bakoitzetik besterako adaptatibitatea erakusten dute. α-ren balio guztietarako NNaren portaera ona ikusten dugu. 3.1. taulak galera-funtzioaren eta errorearen energia-normak erakusten ditu proba datuetan ebaluatuta, aurrebaldintzatutako entrenamendu honen amaieran.

3.20a. irudiak galera-funtzioaren eta errorearen energia-normaren eboluzioak erakusten ditu. Ohartzen gara galera-funtzioaren beherakada errorearen energia-norman baino handiagoa dela, espero zen bezala. Aurrebaldintzatzaileen blokeen tamaina urratsez urrats handitzen badugu (adibidez, 8, 8, 16 eta 32 tamainekin





(a) $s = 1$ urratsa (entrenatu aurretik).



(b) $s = 1$ urratsa (entrenatu ondoren).



(c) $s = 2$ urratsa (entrenatu aurretik).



(d) $s = 2$ urratsa (entrenatu ondoren).



(e) $s = 3$ urratsa (entrenatu aurretik).



(f) $s = 3$ urratsa (entrenatu ondoren).



(g) $s = 4$ urratsa (entrenatu aurretik).



(h) $s = 4$ urratsa (entrenatu ondoren).

3.19. irudia: Lau urratsetan lortutako iragarpenak proba datu-basean (3.32). probleman, $0 < \alpha < 200$ denean. Galera-funtzioan energia-norma erabili dugu. $u_{\mathrm{FEM}}(\alpha)$ elementu finituetako soluzioa da eta $u_{\mathrm{NN}}(\alpha)$ DeepFEMaren iragarpena α parametroarentzako.

α	0	3	15	50	200
$\Vert\mathbf{A}(\alpha)\mathbf{u}_{\mathrm{NN}}(\alpha)-\mathbf{f}\Vert_{\mathbf{P}(\alpha)}$	0.0015	0.013	0.0046	0.012	0.082
$\Vert\mathbf{u}_{\mathrm{NN}}(\alpha)-\mathbf{u}_{\mathrm{FEM}}(\alpha)\Vert_{\mathbf{A}(\alpha)}$	0.0160	0.014	0.0061	0.014	0.095

3.1. taula: Hondarraren eta errorearen energia-normaren balioak proba datu-basearen lagin bakoitzerako entrenamenduaren amaieran, (3.32). probleman eta $0 < \alpha < 200$ denean. Zortzi tamainako blokeak erabili ditugu aurrebaldintzatzaileetan.

1., 2., 3. eta 4. urratsetan, hurrenez hurren), errorearen energia-norma eta galera-funtzioa antzera txikitzen dira (ikus 3.20b. irudia). 3.2. taulak galera-funtzioaren eta errorearen energia-normak erakusten ditu proba datuetan ebaluatuta, aurrebaldintzatutako entrenamenduaren amaieran.

α	0	3	15	50	200
$\Vert\mathbf{A}(\alpha)\mathbf{u}_{\mathrm{NN}}(\alpha)-\mathbf{f}\Vert_{\mathbf{P}(\alpha)}$	0.0022	0.0059	0.0043	0.0086	0.011
$\Vert\mathbf{u}_{\mathrm{NN}}(\alpha)-\mathbf{u}_{\mathrm{FEM}}(\alpha)\Vert_{\mathbf{A}(\alpha)}$	0.0053	0.0075	0.0058	0.0101	0.013

3.2. taula: Hondarraren eta errorearen energia-normaren balioak proba datu-basearen lagin bakoitzerako entrenamenduaren amaieran, (3.32). probleman eta $0 < \alpha < 200$ denean. Tamaina gorakorreko blokeak erabili ditugu aurrebaldintzatzaileetan.

3.6.4.2. Helmholtzen ekuazio parametrikoa: $-50 < \alpha < -30$

Kasu honen soluzio analitikoa honako hau da: $u^*(x) = C\sin(\sqrt{\alpha}x)$, $C = \frac{2\pi}{\sqrt{\alpha}\cos(\sqrt{\alpha})}$ izanik. Ehun lagineko datu-base bat aukeratuko dugu NNa entrenatzeko, eta honako probarako datu-base hau hautatuko dugu: $\{-50, -45, -40, -35, -30\}$. H^1-norma aukeratuko dugu galera-funtzioarentzako eta goian erabili dugun blokeka entrenagarria zen arkitektura bera. NNaren entrenamendua goiko bloke tamainen progresioa erabilita egiten badugu (ikus 3.21a. irudia), ohartuko gara oraingo honetan galerak ez duela errorearen H^1-norma gutxitzen. Alderantzizko matrizeak aurrebaldintzatzaile gisa erabiltzen baditugu (ikus 3.21b. irudia), emaitzak onargarriak dira. 3.22. irudian urratsez urratseko iragarpenak aurkezten dira, entrenamendua 3.21b. irudiaren arabera egiten denean.

Kontuan izan baliokideak direla alderantzizkoak erabiltzea eta honako galera-funtzio hau aplikatzea:

$$\mathcal{L}(\theta, D) = \frac{1}{|D|}\sum_{\alpha\in D}\Vert\mathbf{u}_{\mathrm{NN}}(\alpha)-\mathbf{u}_{\mathrm{FEM}}(\alpha)\Vert_{\mathbf{K}+\mathbf{M}}, \tag{3.33}$$



(a) Zortzi tamainako aurrebaldintzatzaileak erabilita.



(b) 1., 2., 3., eta 4. urratsetan 8, 8, 16 eta 32 tamainako blokeak erabilita, hurrenez hurren.

3.20. irudia: Galera-funtzioaren eta errorearen energia-normaren eboluzioak lau urratsetan (3.32). probleman, $0 \leq \alpha \leq 200$ denean.



(a) 1., 2., 3., eta 4. urratsetan 8, 8, 16 eta 32 tamainako blokeak erabilita, hurrenez hurren.



(b) Matrizeen alderantzizkoak erabilita aurrebaldintzatzaile gisa.

3.21. irudia: Galera-funtzioaren eta errorearen energia-normaren eboluzioak lau urratsetan (3.32). probleman, $-50 < \alpha < -30$ denean.





(a) $s = 1$ urratsa (entrenatu aurretik).



(b) $s = 1$ urratsa (entrenatu ondoren).



(c) $s = 2$ urratsa (entrenatu aurretik).



(d) $s = 2$ urratsa (entrenatu ondoren).



(e) $s = 3$ urratsa (entrenatu aurretik).



(f) $s = 3$ urratsa (entrenatu ondoren).



(g) $s = 4$ urratsa (entrenatu aurretik).



(h) $s = 4$ urratsa (entrenatu ondoren).

3.22. irudia: Lau urratsetan lortutako iragarpenak proba datu-basean (3.32). probleman, $-50 < \alpha < -30$ denean. Galera-funtzioan errorearen H^1-norma erabili dugu. $u_{\mathrm{FEM}}(\alpha)$ elementu finituetako soluzioa da eta $u_{\mathrm{NN}}(\alpha)$ DeepFEMaren iragarpena α parametroarentzako.

non $\mathbf{u}_{\mathrm{NN}}(\alpha)$ ikurrak DeepFEMaren iragarpen bektoriala adierazten baitu eta $\mathbf{u}_{\mathrm{FEM}}(\alpha)$ ikurrak FEMaren soluzio bektorea α parametroarentzako. Bektore horiek guztiak aurretiaz kalkulatuz, eta (3.33). ekuazioan dagoen galera-funtzioa erabiliz, entrenamendua alderantzizko matrizeak erabilita baino askoz merkeagoa izango litzateke. Sinpletasunagatik, kapitulu honetan zehar alderantzizkoak kalkulatu ditugu aurkeztutako arrazoiketarekin koherentzia mantentzeko, eta ez dugu exekuzio denborarik konparatu; ebazle eraginkor batek inoiz ez bailuke matrize baten alderantzizkoa esplizituki kalkulatuko [5, 169, 158].

4. The Deep Double Ritz Method

Summary. Residual minimization is a widely used technique for solving Partial Differential Equations in variational form. It minimizes the dual norm of the residual, which naturally yields a saddle-point (min–max) problem over the so-called trial and test spaces. In the context of Neural Networks, we can address this min–max approach by employing one Neural Network to seek the trial minimum while another Neural Network seeks the test maximizers. However, the resulting method is numerically unstable as we approach the trial solution. To overcome this, we reformulate the residual minimization as an equivalent minimization of a Ritz functional fed by optimal test functions computed from another Ritz functional minimization. We call the resulting scheme the *Deep Double Ritz Method*, which combines two Neural Networks for approximating trial and optimal test functions along a nested double Ritz minimization strategy. Numerical results on different diffusion and convection problems support the robustness of our method up to the approximation properties of the considered Neural Networks and the training capacity of the optimizers. *Refer to [217] for the published version.*

4.1. Introduction

Within the variational framework introduced in Section A.5.2/1.5.2, residual minimization reads as a saddle-point (min-max) problem as follows:

$$\min_{u\in\mathbb{U}} \max_{v\in\mathbb{V}\setminus\{0\}} \frac{\langle Bu-l,v\rangle_{\mathbb{V}'\times\mathbb{V}}}{\|v\|_{\mathbb{V}}}, \tag{4.1}$$

where $\mathbb{U}$ and $\mathbb{V}$ are the trial and test spaces, $B:\mathbb{U}\longrightarrow\mathbb{V}'$ is the differential operator governing the considered BVP in variational form, $\mathbb{V}'$ is the dual space of $\mathbb{V}$, and $l\in\mathbb{V}'$ is the right-hand side. In [232, 20], the authors proposed addressing this optimization scheme employing Generative Adversarial Networks (GANs) [78, 79] by approximating u and v with two NNs. Unfortunately, this approach presents a severe numerical limitation: the Lipschitz continuity constant of the test maximizers with respect to the trial functions might become arbitrarily large when approaching the exact solution. Moreover, the corresponding test maximizer is highly non-unique in the limit. In consequence, we end up with an inherent lack of numerical stability that is easily confirmed by numerical experiments with simple model problems.

To overcome the above limitations, we reformulate residual minimization as a minimization of a Ritz functional fed by optimal test functions [55, 58]. Since optimal test functions are generally unavailable, we compute them for each trial function using another Ritz method. Thus, the resulting scheme is a nested double-loop Ritz minimization method: the outer loop seeks the trial solution, while the inner loop seeks the optimal test function for each trial function. We call the resulting scheme the *Double Ritz Method*.

In some occasions, the trial-to-test operator that maps each trial function with the corresponding optimal test function is available. For example, when the problem is symmetric and positive-definite, and we consider the norm induced by the bilinear form for the trial and test spaces, the trial-to-test operator is the identity; or when selecting the strong variational formulation, the trial-to-test operator is the one given by the PDE operator. In these cases, the Double Ritz Method reduces to a single-loop Ritz minimization (this will be further discussed in Section 4.2.4). Thus, the Double Ritz Method is a general method for solving PDEs in different variational forms, which in some particular cases simplifies into a single-loop Ritz minimization method.

Thanks to NNs, we find a simple and advantageous computational framework to approximate and connect the trial and test functions between the inner- and outer-loop minimizations in the Double Ritz Method, a task that is challenging to tackle with traditional numerical methods. Herein, we propose using one NN to represent the trial functions and another NN to represent the local actions of the trial-to-test operator. Thus, the composition of both NNs represents the (optimal) test functions, and we preserve the trial dependence of the test functions during the entire process. We call the resulting NN-based method the *Deep Double Ritz Method (D^{2}RM)*.

While the D^{2}RM replicates existing residual minimization methods in the context of NNs, we fall short of providing a detailed mathematical convergence analysis due to the manifold structure of NNs that departs from the traditional vector-space-based mathematical approach (recall Chapter 2). Related to this, we encounter the usual drawbacks of lack of convexity between the objective/loss function with respect to the trainable parameters, which prevents us from making a proper diagnosis of the optimizer during training.

